

## Sakontze egitasmoa

---

**Soraluzeko guraso ia euskaldunak eta euskara  
Euskararen inguruko Soraluzeko guraso ia euskaldunen  
pentsamendua eta euskararen normalizazioan aktore  
aktiboago bilakatzeko proposamena**

---

Egilea: Arrate Gisasola Izeta

Tutorea: Estiñe Astorkia Kortabitarte

Soraluze, 2016ko uztaila

*Eskerrik asko lana egiteko  
erreztasunak eman  
dizkidazuen lagunei eta  
bereziki eskerrak eztabaida  
taldeetan parte duzuen  
gurasoei.*

*“Transmitir es hacer amar,*

*haciendo conocer”*

Hélène Cixous

Euskara ez dakiten gurasoek ere transmititu ahal  
dute. Gure ttikiek euskara ezagutuz, noizbait euskara  
bere eginen dutela, maite eginen dutela ziurtatzeko  
prozesua da transmisioa

Pauala Kasares – definizioaren azalpena euskarari lotuz -

Soraluzeko guraso ia euskaldunen hizkuntzari lotutako pentsamenduan sakondu da; bizipenak, hizkuntza ibilbidea, jarrerak, motibazioak... Soraluzeko guraso ia euskaldunak asko dira eta euskararen normalizazioan ekarpen haundia egin dezakete. Guraso ia euskaldunekin elkarritzeta elebidunetarako aukerak badaude, eta haiiek guzti hau nola bizi eta nola ikusten duten aztertu da lan honetan. Metodologiaren erdigunean, guraso ia euskaldunez osatutako eztabaida taldeak egon dira, eta orokorrean, emaitza positiboak izan dira. Ondorioz, guraso ia euskaldunak euskararen normalizazio prozesuan aktore aktiboago izateko proposamena lantzeko hasieran baino baldintza hobeetan aurkitu gara, aurreiritzietatik aldendu eta haiiek esandakoetatik proposatz. Soraluzeko gurasoak ekimenaren erdigunera ekarriz, euskaldun vs erdaldun arrakala gainditzeko urrats txiki bat eta elkarritzeta elebidunak ugaritzeko proposamen praktiko bat da sakontze egitasmoaren azken zatian aurkitu duzuna.

## AURKIBIDEA

1	Sarrera .....	5
2	Aurrekariak.....	5
3	Lanaren hipotesi eta helburuak .....	6
4	Aditu eta arituen iritzi, teoria eta proposamenak.....	7
4.1	Hizkuntza gaitasuna .....	7
4.2	Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak .....	7
4.3	Ia euskaldunak eta elkarritzeta elebidunak.....	8
4.4	Aurreiritzi eta interpretazio okerrak .....	9
5	Metodologia .....	13
5.1	Azterketa kualitatiboa. Eztabaidea taldeak.....	13
5.2	Solaskideak. Identifikazioa eta taldeen osaketa. ....	14
5.3	Datuak aztertzeko metodoa .....	15
5.4	Metodologiaren ebaluazioa.....	16
6	Datuen azterketa .....	17
6.1	Solaskideen profilean sakonduz .....	17
6.2	Eztabaidea taldeetan barrena .....	19
6.3	Aurrekarien alderaketa .....	39
7	Ondorio eta hausnarketak.....	45
8	Guraso berritsuak - Guraso ia euskaldunekin euskaraz!.....	48
8.1	Sarrera.....	48
8.2	Aurrekariak eta proposamen berrirako egokitzapenak .....	49
8.3	Guraso berritsuak. Guraso ia euskaldunekin euskaraz! .....	53
9	Bibliografia eta erreferentziak.....	55
10	ERANSKINAK .....	57
10.1	ERANSKINA I – Eztabaidea taldeetarako galdera sorta - .....	57
10.2	ERANSKINA II Guraso berritsuak – guraso ia euskaldunekin euskaraz! .....	60

## 1 Sarrera

---

Euskararen egoerari begirada jartzen diogunean, eta etorkizunaren zantzuak aztertu nahi ditugunean, haur eta gazteen euskararen erabilera ezagutzea ezinbesteko egiten da. Soraluzeko haur eta gazteek euskararen erabilera urria kezka bilakatu da herrian. Soraluzeko Euskararen Plan Estrategikoan ere, haur eta gazteen euskararen erabilera bultzatzea da lan lerro nagusietako bat.

Haur eta gazteen euskararen erabileraren hainbat faktorek dute eragina eta hauen nolakotasunean gurasoek oso paper garrantzitsua jokatzen dute. Beraz, gurasoek asko egin dezakegun ideia hortatik abiatuko da lan hau.

Sakontze egitasmorako aukeratutako gaia ez da kasualitatez agertu. Nire lan esparruan eta guraso izan ostean buruan bueltaka izan dudan gaia da hurrengo orriean aztertzen dena. Soraluzeko ia euskaldunen kopurua oso altua da. Ia euskaldunak, euskaraz egiteko zailtasunak izanik ere, ulertzeko gai dira. Eta haien euskaraz egingo bagenu? Nola sentituko dira? Zer dute haien buruan?

Soraluzeko ia euskaldunen kopuru horretatik gehienetan gaur egun guraso da edo guraso izateko adinean dago. Haientzako seme alabak D eredu murgilduta daude eta euskara, nahi ta nahiez eguneroko ogia bilakatu zaie. Eta guraso ia euskaldun hauek nola bizi dute hizkuntzaren gaia? Nola jaso dute? Nola eta zer transmititzen dute? Euskararen normalizazioan aktore aktiboagoa izan nahi al dute?

Ulertzeko gaitasuna izanik, guraso multzo honekin euskaraz egiteko aukerak zabaltzen zaizkigu parez pare, elkarritzeta elebidunak izateko aukerak, euskararen erabileran salto kuantitatibo zein kualitatiboa emateko aukerak. Hizkuntza ohituren aldaketarako proposamena euskaldunen teilatuan utzi dezakegu baina ez al da eraginkorrago eta xamurragoa izango beste aldean egon daitekeen hura ezagutu eta bidea elkarrekin egitea? Goazen ba lehen urratsetan murgiltzera, goazen haien pentsatzen dutena aztertzen.

## 2 Aurrekariak

---

Aurrekarietan lehenik eta behin ezinbestean aipatu beharreko azterketa lana Amorrortu eta besteen *erdaldunen euskararekiko aurreiritzi eta jarrerak* (2009). Lan sakon honetatik, orduan egindako eztabaidea taldeetan agertutako ideia eta ondorioak ekarri dira eta guraso ia euskaldunekin egindako eztabaidea taldeetan agertutakoekin alderaketa bat egingo da aurrerago. Hauek izango dira aurrerago alderatuko diren puntuak:

- Euskararekiko kokapena
- Bi munduko egoeran bizitzea, euskarari uztartutako mundua mundu ezezaguna.
- Euskarari eta hizkuntza politikari ematen zaion babesari mugak.
- Euskara ikasteko edo euskaraz hitz egiteko motibazioak:
- Seme-alaben hezkuntza-eredua aukeratzeko norberaren edo besteen arrazoia.
- Euskara ikastea
- Aurreiriziak, usteak eta balorazio orokortuak

Amorrorturen lanaz aparte, Alkarrekin Soraluze Eginez<sup>1</sup> prozesuaren barnean, Elhuyarren aholkularitzak lagunduta *Soraluzeko Plan estrategikorako diagnostikoa* (2014) eta Soziolinguistika Klusterrak egindako *Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana* (2015) kontuan hartzea ezinbestekoa da. Guraso ia euskaldunen gaia-rekin guztiz lotzen diren emaitzak ere badira bertan, eta aurrerago eztabaidea taldeetan agertutakoekin alderaketa egingo da.

Hala ere, zuzen zuzenean azterlan honetan aztergai diren “guraso ia euskaldunak” aztertzen dituen lanik ez da aurkitu.

---

<sup>1</sup> Soraluze biziberritzeko oinarriak jarri nahi dituen prozesua da Alkarrekin Soraluze Eginez. Herritarrei parte hartzeko, ideiak proposatu eta hauek garatzeko espazioak eskaini nahi dizkie. Herritarren ahalduntzea oinarri eta bide duen prozesua da Alkarrekin. Soraluze biziberritu duen subjektua herritarrak izanik.

### 3 Lanaren hipotesi eta helburuak



## 4 Aditu eta arituen iritzi, teoria eta proposamenak

### 4.1 Hizkuntza gaitasuna

Hizkuntza-gaitasunaz dihardugunean, pertsona batek hizkuntza bati buruz duen ezagutza-mailaz ari gara. Horretarako, lau trebetasunak (mintzamena, ulermenaren, irakurmena eta idazmena) neurtzen dira, eta trebetasun bakoitzari buruz emandako erantzunak gurutzatzuz osatzen da hizkuntza-gaitasuna edo ezagutza-maila<sup>2</sup>.

Euskararen gaineko azterketa edo eta lan askotan termino desberdinak ikus ditzazke gaitasuna mailakatu eta izendatzeko.

Euskaldunak = euskal hiztunak = elebidunak  
Ia euskaldunak = euskaldun pasiboak = elebidun hartzaleak  
Erdaldunak = erdal hiztunak = elebakarrak

Lan honetan EUSTATek erabili ohi dituen terminoak erabili dira hizkuntza gaitasunaren kategorizazioak egiteko: euskaldunak, ia euskaldunak eta erdaldunak. Euren erantzunaren arabera beti ere.

- **Euskaldunak:** euskara “ondo” ulertzen eta “ondo” hitz egiten dutenak.
- **Ia euskaldunak:** euskara “ondo” edo “nekez” ulertu eta “nekez” hitz egiten dutenak.
- **Erdaldunak:** euskara ulertzen ez dutenak eta hitz egiten ez dutenak.

### 4.2 Gazteen hizkuntza erabilera eragiten duten faktoreak

Hurrengo lerroetan *Gazteen hizkuntza erabilera eragiten duten faktoreen azterketa*<sup>3</sup>ren emaitzak ditugu:

- Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa: Euskarari buruzko (zaharkitua/modernoia, sinbolikoa/praktikoa, prestigiootsua...) ustea edo irudia.
- Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte-pertzepzioa: Euskararen estatusari buruzko ustea edo irudia.
- Hizkuntza gaitasuna: Euskara erabili ahal izateko konpetentzien multzoa: norberarenak eta bere harreman sarean topatzen dituenak.
- Input mediatikoak: Mota guztiako komunikabideen bitartez hizkuntza bat eta bestearekin lotuta jasotzen diren edukien eragina.
- Pertsona eta talde erreferenteak: Hiztunarentzat erreferentzia edo eredu diren pertsonen hizkuntz jokaera.
- Kontsumo eskaintza (produktu eta zerbitzuak): Kontsumo-eskaintzaren hizkuntza eta erakargarritasunmaila.

<sup>2</sup> Definizioa ALZPURUA, Jon (2015) Euskal Herriko hizkuntza egoera:statusa. HIZNET

<sup>3</sup> 2009an Soziolinguistika Klusterrak Urtxintxa eskolarekin eta Topagunea euskara elkarteen federazioarekin garatu du hain konplexua den gazteen hizkuntz erabileraaren fenomenoaren azterketa. Gazteekin lanean esperientziadun jendea, gaia maila teorikoan landu duena eta ezaugarri ezberdinak gazteen arteko hausnarketa partekatua du oinarri azterketa honek.

- Identitate kolektiboak: Hiztunarenengen kidetasun sentimendua sortzen duten talde identitateak
- Norbanakoa eta taldearen arteko elkarreragina: Talde jokaerak norbanakoaren ean eta norbanakoaren jokaerak taldearenean eragiteko duen ahalmena.
- Jarrera eta portaeraren arteko koherenzia: Norbanakoak bere hizkuntza kontzientzia eta jokaeren artean duen koherenzia maila.
- Harreman sareetako hizkuntza arauak: Inguruko pertsona eta taldeen hizkuntz erabilera arauak (ohiturak, inertziak)
- Marko legala: Euskararen gizarte erabilera arautzen duen legeria.
- Haurtzaroko hizkuntza ingurunea (Biografia linguistikoa): Lehen gizarteratze prozesuan, norberaren mundu sinbolikoa eratzerakoan, hizkuntzarekiko bizipenen multzoa eta hauen pertzepzioa.

#### 4.3 Ia euskaldunak eta elkarritzeta elebidunak

Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera. EAE, 1981-2011 (%)

	1981	1991	2001	2011
<b>Euskaldunak</b>	21,9	26,4	32,2	36,4
<b>Euskaldun hartzaleak</b>	12,2	16,2	18,2	19,3
<b>Erdaldunak</b>	65,9	57,4	49,6	44,3

Iturria: V. mapa soziolinguistikoa 2011

EAEko ia euskaldun eta euskaldunen kopuruaren goranzko joera ikus daiteke taula honetan.

Euskaldunari euskaraz aritzeko aukerak biderkatzen zaizkio ia euskaldunari ere euskaraz eginez gero. Beste gauza bat da zenbateraino baliatzen ditugun dauzkagun aukerak. Soraluzen gurasoen artean aukera hau, nabarmena dela ikus dezakegu hurrengo taula honetan:

	EUSKALDUNAK	IA EUSKALDUNAK	ERDALDUNAK
aita	166	140	113
ama	214	138	67
GUZTIRA	<b>380</b>	<b>278</b>	<b>180</b>
%	<b>45%</b>	<b>33%</b>	<b>22%</b>

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015. Soziolinguistica klusterra.

Soraluzeko gurasoen artean euskara asko erabiltzeko potentziala badagoela esan dezakegu.

Onintza Iruretak, Argian, “Zuk egin erdaraz, nik euskaraz egingo dizut”<sup>4</sup> elebitasun pasiboari buruzko artikulo interesgarria ekarri zigun. Hainbat adituren eritziak jasotzen ditu bertan. “*Ez daki enari euskaraz egitea ez da onuragarria euskara hiztunarentzat soilik, baita erdaldunarentzat eta euskara ikasten ari denarentzat ere. Euskarara hurbiltzeko modua litzateke ulermenaren lantzea, gero poliki-poliki, hitz egiten hasteko, EGA mailako euskara lortu arte zain egon gabe. Beldurrik, lotsak... beti mahai gainean ditugu.*”

“*Hemen jendeak ingelessez hitz egiten hasi aurretik barkamena eskatzen dizu*” Durk Gorter<sup>5</sup>. Durkerrei egindako Argiako elkarritzetik jasoa. Durkerren ustez, jokaera honen atzean, hizkuntzaren maila altua izan arte erabili ezin dutenaren pentsamendua dago. Eta honek lotura zuzena du hizkuntzekin izan dugun eta dugun harremanarekin. Oso garrantzitsua da beraz, hizkuntzekin izan dugun harremana eta bizi penak ezagutzea, bizi pen horien atzean dagoena ulertu gabe, nekez egingo baitugu proposamen erreala eta eraginkor bat.

### **Elkarritzeta elebidunak**

Elkarritzeta elebiduna bi hizkuntzatan elkar komunikatzen duten bi pertsona edo gehiagoren arteko elkarritzeta da. Beraz, gurera ekarrita, komunikatzen direnen artean euskara ulertzeko arazorik ez badago, hizkuntza bi erabil ditzazke elkarritzeta berean (gaztelera eta euskara edo frantsesa eta euskara).

Erabileran jauzia emateko bide horretan, euskara ikasten ari den horri laguntzeko modu bat izan daiteke eta euskaraz bizi nahi dutenentzat hizkuntza erabiltzeko aukera ezin hobea.

Gako nagusietako bat ulermenean dago, baina Euskal Herrian elkarritzeta elebiduna ez da ohiko praktika bat. Oztopo nagusiak kognitiboan dauzkagu, eta zehazki, gure aurreiritzi edo interpretazio okerretan oinarritzen dira<sup>6</sup>.

#### **4.4 Aurreiritzi eta interpretazio okerrak<sup>7</sup>**

Pertsonek aurre juzguak egiteak aurreiritzien existentzia dakar berarekin, normalean modu negatiboan gertatzen direlarik (Fiske, 1998; Jones, 1997; Nelson, 2002). Aurreiritzia sinesmen eta iritzi bat izateaz gain, jarrera edo jokaera bat ere bada, eta mespretxua, samintasuna edo gorrotoa bezalako sentimenduak barne biltzen ditu.

Estereotipoak aldiz, kolektibo edo talde jakin bati begirako orokortze bati egiten dio erreferentzia. Orokortze hauek positiboak izan daitezke baina gehienetan, negatiboak izateaz gain, aldaketaren aurrean erresistente bilakatzen dira. Zoritzarrez, estereotipoek, aurreiritzi eta diskriminazioak errazten dituzte. Diskriminazio honek, taldea desabantaila egoera batera eramatzen du eta injustizia ahalbideratzen du. “Diskriminazio pertsonala” norbanakoak egiten duen diskriminazio mota da (adibidez, pertsona batek beste bat

<sup>4</sup> Onintza Irureta Azkune – Argia- 2010eko Martxoak. Zuk egin erdaraz, nik euskaraz egingo dizut.

<sup>5</sup> Durk Gorter - Doctor in Humanities 1993 from the University of Amsterdam.

<sup>6</sup> Lantalan web ataristik jasoa - EMUN hizkuntza zerbitzuak - <http://www.lantalan.eus/tag/elkarritzeta-elebidunak>

<sup>7</sup> AGUILAR-MORALES, J.E. 2011. Prejuicios, estereotipos y discriminación.

kontratatzeari uko egiten dio bere arrazarengatik), bestalde, “diskriminazio instituzionala” dago; erakunde edo instituzioek aplikatzen dituzten praktika edo politika diskriminatzialeak (adibidez. Estatu bateko immigrazio politikak).


Hiru fenomeno hauek modu bateratuan, isolatuta edo modu intentzionatu gabean ager daitezke.

### Aurreiritziak

#### ○ Aurreiritzi eta pentsamendu kategorikoak

“Prejuicios, estereotipos y discriminación” azterketan aurreiritzia, pentsamendu kategorikoarekin lotzen du eta mundua ulertzeko dugun moduaren emaitza naturala litzake. Kategoriatan pentsatzen dugunean, aurreiritzia agertzea erreza gertatzen da. Gordon Allport<sup>8</sup> izan zen pentsamendu kategorikoen eta aurreiritzien arteko loturez hitz egiten lehena.

Hurrengo irudia kategoritzatzeko dugun joera naturala adierazteko adibide argia izan daiteke. Ertzetako irudiak karratua eta erronboa dira. Eta besteak? Hauek ez dute kategoria zehatzik, eta izendatzeko orduan biratutako karratua edo errotazioan dagoen erronboa bezalako izendapen “nahasiak” erabiltzen ditugu.



Pertsonekin ere kategorizatzeko joera daukagu: langilea, zuria, eskuzabala, ... Kontzeptu horiek errealtaterekin duten oinarri falta kontuan izan gabe. Estatu Batuetan, gutxienez Afro-amerikarren %75ak jatorri zuria du eta zurien geneen %1,5 afrikar jatorrikoak dira (Davis, 1991). Biologikoki, dikotomia bat baino sekuentzia jarraipena adierazten du. Hala ere, gaur egun jendartean oso zabaldurik dago “arrazen purutasuna”.

#### ○ Asimilazioa eta kontrastea

Pentsamendu kategorikoak, pertzepzioaren distortsioa ahalbideratzen du. Distortsio honek, asimilazioa edo kontrastea ekarriko duelarik. Lehenak kategorien arteko desberdintasunak gutxitzen ditu eta bigarrenak aldiz desberdintasunak puztu.

<sup>8</sup> Gordon Willard Allport (1897 – 1967) psikologo Amerikarra. Pertsonalitatearen azterketetan murgildu zen lehengo psikologoetako bat izan zen.

Asimilazioaren adibide bat koloreen pertzepzioaren azterketan (Golston, 1950) ikus daiteke. Zenbaki batek kolore gorri edo moreko beste batzuekiko daukan posizioaren arabera, jendeak desberdintasunak murriztu eta kolore batean edo bestean kokatzen zuen.



Talde barruko desberdintasunak minimizatzen jotzen da eta talde desberdinaren arteko aldiz puztera.

- **Kanpo taldearen homogenizazioa eta barne taldearen aldekotasuna**

“Kanpo taldea” pertsona haren parte ez den taldea izango litzake eta “barne taldea” pertsona haren parte dena. Homogenizazio fenomenoan, taldeko pertsonen jarrera, izaera, baloreak eta bestelako ezaugarriak berdintzena jotzen da eta barne taldekoen ezaugarrien artean desberdintasun gehiago ikusten dira. Fenomeno honek, kanpo taldea errazago estereotipatzea ahalbideratzen du. Fenomeno arrazoitzeko aukera posible bat, barne taldeko pertsonek kanpo taldeko pertsonekin kontaktua txikiagoa dutela izan daiteke. Azken urteetako azterketen arabera, barne taldearen aldekotasuna, horri begira dugun sentimendu positiboekin lotzen da eta ez kanpo taldearekin izan dezakegun aurkako sentimenduekin (Aberson, Healy, & Romero, 2000; Brewer, 1979, 1999).

- **Kausazko leporatzea**

Aurreiritziek kanpo taldeen jokabideen azalpen desegokietan ere hartzen dute oinarri.

- Mundu justu baten teoria (pertsonek dutena merezi dutela asumituz). Pertsona pobreak haien pobreziaren errrun eginez adibidez.
- Portaera kausa disposicionaletan kokatuz (oinarrizko leporatze akatsa). *Herrialde pobreek ez dute negoziorik egiten ikuspegi enpresarialik ez dutelako esatea adibidez.*

Kanpo taldeen portaera negatiboak, kausa disposicionaletan kokatuz gero eta jokaera positiboak, salbuespeneko kasu bezala ulertz gero, kanpo taldeetako kideentzat ezinezkoa izango da aurreiritzietatik libratzea, egiten dituen ekintza positiboak ez bait zaizkio kontuan hartuko eta bestelakoak bere aurka erabiliko dira.

- **Aurreiritzien forma sotilak**

Gaur egun, eskubide zibiletan “aurrera” egin dugula esaten den honetan, pertsona batek bere aurreiritzia argira ekartzea zailagoa da, ez da politikoki zuzena. Baino praktikan, jokaerak diskriminatzialeak ez dira desagertu. Aurreiritzien forma sotilarekin aurkituko ginateke hemen (sexismo sotila, arrazismo sotila...).

## **ESTEREOTIPOAK**

Aurreiritzien kasuan bezala, estereotipatzea munduko kulturetan zehar ohikoa eta naturalki egiten dela gogorarazten dute hainbat psikologiako azterketek.

Estereotipoak, beste orokortasun asko bezala, bidezidor mentalak dira. Estereotipoak, talde estereotipatuekin loturiko irudi edo hitz bat ikuste hutsarekin aktibatu daitezke, eta jokaera zein jarreretan eragina izan dezakete. Konturatu gabe ere gerta daitezke, leheneste implizituen bidez jarrera edo eta erlazio estereotipatuak izan ditzakegu.

- **Estereotipatzearen ondorioak**

Pertzepzio sozialean eta jokaeretan eragina dute estereotipoek. Estereotipatuak diren talde edo pertsonen bigarren egoera bati ere aurre egin behar izaten diote (estereotipoaren mehatxua): bere jarrerak estereotipo negatibo bat konfirmatuko lezakenean. Honek antsietate eta egoeren gaitzotzea ekarri dazakelarik.

## 5 Metodologia

---

### 5.1 Azterketa kualitatiboa. Eztabaidea taldeak

Ikerketa honetan azterketa kualitatiboa erabili da eta eztabaidea talde edo “focus group” deritzon teknikaren bidez burutu da.

Ikerketa kualitatiboak gai nahasiak edo difusoak aztertzea ahalbideratzen du; jarrerak, motibazioak, sinesmenak... Gizarte, “gertakariz” eta “diskurtsoz” osaturik dago. Gertakariak eta diskurtsoak elkarlotu eta azterketa kualitatiboarekin, gizarte praktiken zentzua aztertzen da, eguneroko bizimoduera eraikitzen duten gizarte esanahiak aztertzen direlarik.

“los discursos, por tanto, no son simples expresiones de lo que ocurre en el interior de los individuos, sino «jugadas» (moves) en el juego de la interacción: prácticas para obtener recursos, para negociar el sentido de la interacción y el valor social de las personas implicadas y de uno mismo” (Enrique Martín Criado, 1997).

Euskomediaren web atarian jasotzen den bezala<sup>9</sup>, metodologia kualitatiboa honako kasuetan erabiliko da nagusiki:

- Gertakari baten aurrean egon daitezkeen ikuspuntu, jarrera eta iritzi ezberdinak sakontasunez ezagutzeko. Zenbaki edota ehunekoetatik haratago iritsi nahi da eta horretarako populazioaren diskurtsoak jaso eta horietan sakontza komeniko litzateke.
- Gai zehatz baten inguruan pertsonek eduki ditzaketen esperientziak, bizipenak eta pertzepzioak sakontasunez ezagutzeko.
- Gai baten konponbidea bilatzeko garaian, proposamen eta ideia desberdinak jasotzeko, hau da, ekarpenak, irtenbideak edota egitasmoak irudikatzen hasteko.
- Gertakari edo gai baten garapenean (eboluzioan) sakontzeko eta etorkizunerako lan-ildoak aurreikusteko, sormen-lana bultzatzeko eta taldekako hausnarketa sustatzeko.

Talde eztabaidearen teknikarekin, pertsona bakarra edo gutxi batzuk izan beharrean, talde bat izango da protagonista. Talde hau ez da izango naturala (familia bateko kideak edo koadrila bat, adibidez), ikerketari begira eraikia baizik. Beraz, eztabaidea-talde bat egitean, egoera esperimental baten aurrean aurkitzen gara. Helburua taldearen bitartez gizartean gai edota gertakari baten inguruan egon daitezkeen posizio edota diskurtso desberdinak azalaraztea eta errepruduzitzea da. Hori dela eta, taldeak sortutako diskurtsoak eta egoerak izango dira analisiari aurre egiteko eta ondorioak ateratzeko langai nagusia. Teorian talde ez ezberdinak errepruduzitzen dira. Posizio ezberdin horiek diskurtsoetan gauzatzen dira eta horiek analisirako lehengai bihurtzen.

---

<sup>9</sup> Hizkuntzak azergai: ikerketa metodoaren oinarrizko hurbilpena - Soziolinguistica Klusterraren lankidetzarekin eta gidaritzapean <http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee152152/136266>

Eztabaida-taldearen moderatzailea, ni neu, eta eztabaida-talde horretarako gonbidatutako kideak izan dira protagonistak. Gune horretan sortzen eta garatzen da eztabaida, harremanek eta diskurtsoek bi norabide izango dituela kontuan hartuz. Alde batetik, moderatzailea eta taldekideen artean sortutako harremana; bestetik, taldekideen artean emango den eztabaida. Azken hau da, hain zuzen ere, bereziki bilatu dena. Ildo horretatik esan daiteke teknika honen azken helburuak honako hauek izan direla:

- Gai baten arlo garrantzitsuenak ezagutzea.
- Gai horren inguruan taldekideen artean egon daitezkeen ikuspuntuak ikertzea eta sor daitezkeen adostasun eta desadostasunak aztertzea.

Helburu horiek bete ahal izateko, moderatzailearen lana oso garrantzitsua da, eta bere eginkizun nagusia hitz gutxitan azaldu daiteke: taldekideen artean eztabaida eta iritzien trukaketa ahalbidetuko duen giroa sortzea.

Horrekin batera, eztabaida ondo antolatzeko, aztertu nahi diren gaiak gidoi egoki batean bildu dira. Gidoia eztabaidan zehar ez galtzeko eta hitz egin beharreko gaiei buruz hitz egiteko erabili da. Gidoia baina, ez da modu zurrunean erabili. Gidoian aurre ikusten zen ordena nahiz galderen planteamendua eztabaidak hartzen zuen norabidearen arabera aldatu dira.

Eztabaida taldeek bi orduko iraupena izan dute.

Eztabaida taldeen metodologiaren azalpenerako Hizneteko irakurgaia erabili da. <sup>10</sup>

## 5.2 Solaskideak. Identifikazioa eta taldeen osaketa.

Solaskideen identifikaziorako, Soziolinguistika Klusterrak “Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana, 2015” egiteko erabili ziren galdetegi eta zerrendak erabili dira. Gurasoen seme alaben adina eta gurasoen hizkuntza gaitasuna izan dira kontuan.

Hizkuntza gaitasunari dagokionez ia euskaldunak diren gurasoen zerrenda egin da (Soraluzeko HH, LH eta DBHko gurasoak). Horretarako galdetegietako erantzunak hartu dira kontutan.

Soziolinguistika Klusterrak galdetegietan gurasoen gaitasunaren sailkapenerako erabilitako galdera eta erantzunak kontuan hartu dira solaskideen identifikaziorako.

**Zenbateraino daki euskaraz aitak? Zenbateraino daki euskaraz amak?**

- a) Ulertu: Ongi (1) zerbait (2) Ezer ez (3)
- b) Hitz egin: Ongi (1) zerbait (2) Ezer ez (3)
  - *Erantzuna a) 1 edo 2 eta b) 2 edo 3 bada elebidun hartzalea IA EUSKALDUNA \**

<sup>10</sup> MARTINEZ Zesar; BERRIO-OTXOA Kontxes; ALTUNA Olatz; JAUSORO Nekane. 2015. 2.1 Ikerketa soziolinguistikorako ikerketa eta teknikak.. HIZNET

Aipatutako identifikazioa egin ostean beste bi aldagai ere izan dira kontuan: sexua eta bikotea euskalduna, ia euskalduna edo erdalduna den.

Eztabaida taldeak osatzeko egokiak izan zitezkeen hainbat gurasorekin harremanak egin ostean, 39 eta 55 urte bitarteko, 16 guraso ia euskaldunek hartu dute parte eztabaida taldeetan, 8 emakume eta 8 gizonezko. 5 eta 6 solaskidez osatutako 3 eztabaida talde egin dira, denak gazteleraz.

### 5.3 Datuak aztertzeko metodoa

ET: hemendik aurrera eztabaida taldeak izendatzeko erabiliko den laburdura  
Datuak aztertzeko 4 urrats nagusi eman dira:

#### Solaskideen anonimotasuna zaindu:

Eztabaida taldeetako solaskideen izenak ez dira agertuko, anonimotasuna gorde da, horretarako talde bakoitza izendatu da: ET1, ET2, ET3 eta talde bakoitzeko solaskideak taldearen kodea kontuan hartuta kodetu dira: ET1\_1, ET1\_4, ET3\_5, ...

Pertsonen izenak, eta kasu batzuetan toki izenak ere ezabatu dira.

#### Autobiografiak. Solaskideen profilean sakondu:

Lehen atal batean, solaskideek egindako autobiografiak kontuan izan dira taldearen profilean gehiago sakontzeko, abiapuntuan denak ia euskaldunak direla badakigu baina taldeetan egindako sarrera autobiografiekin bestelako datu batzuk ere jaso ahal izan dira.

#### Eztabaida taldeetan azaldutako gaiak sailkatzen:

- I. Taldeen transkripzioak egin, esaten dituztenak zehatz mehatz jaso
- II. Gaien sailkapena. Azteketak dituen helburuak eta solaskideek hizpide nagusi izan dituztenak kontuan harturik egin da. Hitz hartze batzuetan gai desberdinak jorratzen dira, beraz, hitz hartze horiek moztu eta dagokion gaian kokatu dira.
- III. Laburpena eta kokapena. Lanerako eskema berdina jarraitu da baina errepikatzen ziren ideia batzuk ezabatuz, ideia osatuen azaltzen dutenak jasoz (hauetako batzuk laburtu ere egin dira) eta atal bakoitzari begirako kokapen labur bat gehitu zaie.

#### Aurrekarien alderaketa:

Aurrekarietan aipatu diren azterketetako interesko gaiak (sakontze egitasmo honekin zerikusia dutenak) eta azterketa honetako emaitzakin alderaketa bat egin da.

## 5.4 Metodologiaren ebaluazioa

Metodologiaren zati nagusiena ET-en bitartez egin da. Taldeetako giroa oso ona eta dinamikoa izan da, parte hartzaleek ere oso positiboki baloratu dute. Taldeak osatzeko orduan izan dira zaitasun haundienak baina lanaren helburua betetzeko, aztertu nahi ziren gaiak aztertzeko, baliagarria izan da oso. Hala ere zaitasun batzuk ere egon dira:

- Parte hartzaleak lanek eta guraso betebehekar zaildu egin dute agenda adostea. Guraso askok prestutasuna agertu badute ere zaitasunak agertu dituzte taldeetara agertzeko
- Ordutegiekin malgutasunik ez izateak zaildu egin du eztabaidea taldeak aldagai desberdinak kontuan hartuta banatzea (seme-alaben adina, bikotearen hizkuntza perfila...). Dena den, nahasian eta egoera desberdinak bizi dituzten solaskideak batzeak ere eztabaidan lagundi du, ikuspegi eta errealtitate desberdinekin eztabaidea aberastu delarik.
- Herriaren tamainak parte hartzaleek elkar ez ezagutzea zaildu du.

## 6 Datuen azterketa

### 6.1 Solaskideen perfilean sakonduz

	<b>Soraluzen noiztik?</b>	<b>jatorria</b>	<b>gurasoen jatorria</b>	<b>etxeiko hizkuntza</b>	<b>bikotea</b>	<b>Ulermen maila</b>	<b>Eskola eredu</b>
<b>ET 1</b>							
1_1	Beti	Galizia/Sora	Galizia	G	er	altua	A
1_2	12 urte	Elgoibar	Galizia eta Extremadura	G	eu	baxua	A
1_3	20 urte	Bilbo	Andaluzi eta Salamanka	G	er	baxua	B
1_4	15 urte	Santurtzi	Valladolid	G eta E	eu	ertaina	A
1_5	Beti	Soraluze	Zamora	G	ia eu	altua	A
<b>ET 2</b>							
2_1	Beti	Soraluze	Baztan eta EH kanpo	G eta E	eu	altua	A
2_2	16 urte	Salamanca	Salamanca	G eta E	eu	ertaina	
2_3	6 urte	Basauri	Galizia	G eta E	eu	altua	A
2_4	Beti	Soraluze	Extremadura	G eta E	eu	altua	B
2_5	Beti	Soraluze	Valladolid	G eta E	eu	altua	A
2_6	12 urte	Elgoibar	Melilla	G	er	ertaina	A
<b>ET 3</b>							
3_1	Beti	Valladolid	Valladolid	G eta E	eu	altua	A
3_2	10 urte	Extremadura	Extremadura	G	er	baxua	A
3_3	Beti	Soraluze	Soraluze	G eta E	eu	altua	A
3_4	Beti	Soraluze	Salamanca eta Palencia	G	er	ertaina	A
3_5	Beti	Soraluze	Valladolid	G eta E	eu	altua	A

\*morez emakumeak

Solaskide gehienek, Soraluzen 10 urte edo gehiago daramate bizitzen. Soraluzen betidanik bizi ez direnak erdiak dira, hauetatik 2 Elgoibartik datoz, 3 zonalde erdeldunagoetatik eta 2 dira Estatistik etorri direnak.

Ulermen maila:

- Ulermen maila baxua, ertaina eta altuko solaskideak dira. 9 solaskidek ulerme maila altua dute. 5 solaskidek ertaina. 3 solaskidek baxua.
- Ulermen maila baxukoak, elkarritzeta elebiduneri begira zaitasunak agertu ditzazketenak dira. Kasu honetan, haietako bat zonalde erdaldun batetik dator, euskararekin oso harreman txikia izan du eta bikotea ere erdalduna da. Bigarrena Estatistik etorri da orain dela 10 urte eta bere bikotea ere Estatistik etorri da. Hirugarren kasua, bikote euskalduna du eta nahiko zonalde euskaldunean bizi izan da baina oso harreman txikia izan du euskararekin.
- Ulermen ertain edo altua. Premisa hauetako bat edo gehiago betetzen du:
  - 1- Soraluzen bizi da betidanik 2- bikotea euskalduna da/etxeiko hizkuntza gaztelera eta euskara 3- helduen euskalduntze alfabetatzean murgilduta dago edo egon da.

Soraluzetik edo inguruko herrietatik kanpo bizi diren denek (zonalde erdeldunetakoak) euskararekin zuten harremana ia hutsa zela aipatu dute behin eta berriz.

ET1\_3 "Es que yo en Bilbao, me he relacionado todo en castellano, yo nunca... Y yo en Bilbao, todo el mundo, amigos, adultos,... tooodo en castellano, salías de fiesta, todo en castellano, yo no conozco ninguna amama de mis amigas que ibas a su casa y hablaban en euskera, es que yo no he tenido relación con el euskera, allí en Bilbao, nada."

ET2\_3 "siempre he vivido en castellano porque mis padres son inmigrantes Gallegos, y... en la zona en que yo vivía, prácticamente el euskera era minoritario. Muy poco modelo B y prácticamente modelo D no existía"

Soraluzen jaiotakoek aldiz, euskararekin harremana txiki txikitatik oroitzen dute.

ET2\_6 "llevamos aquí toda la vida, aunque no hemos estudiado en euskera todo, vamos, que se entiende"

ET1\_5 Zonalde erdaldunean bizi izandako bati esaten dio: ET1\_5 "A mí me cuesta pensar, que tú no entiendas nada. Porque al final los que hemos nacido aquí, y te has criado aquí, es que estás escuchándolo constantemente, y al final..."

ET3\_4 "El primer contacto que tuve con el euskera, cuando era muy pequeña, fue cuando iba a casa de mis vecinas que eran euskaldunes."

Zonalde bateko edo bestekoak izan, kasu gehienetan, euskararekin harreman estuagoa, gertukoagoa, seme alabak jaio edo eskolaratzen dituztenean hasten da.

ET2\_3 "El euskera hasta que no tuve a mi hijo prácticamente no lo había utilizado nunca"

ET2\_4 "estudié en el modelo D hasta los 7 años y luego en el modelo B. Una vez que sales de la escuela, pues se pierde mucho, y ahora con los hijos, pues... estoy practicando más"

ET1\_2 "El euskera, desde que el chaval anda en la ikastola y tienes niños, pues... yo me imagino que si no tuviera niños pues el euskera, pues... nulo, porque tratas con gente que solo hablan en castellano, tus amigos hablan en castellano, tus padres hablan en castellano... el euskera para mi pasaría como si fuera de lado, que no tendría que ser así, porque aquí vivimos donde vivimos y tenemos que saber euskera"

Adinari dagokionez, 50 urtetik gorako bi solaskide daude, eta hauen egoera ere bestelakoa izan dela azaldu dute.

ET2\_1 "mi idioma materno es el euskera, aunque no lo parezca, en un momento dado, vino a vivir mi abuela materna, que no sabía euskera y se pasó al castellano y se fue perdiendo"

ET3\_3 "todo el contacto que tuve en mi niñez con el euskera fue bastante pobre, porque aquí estaba el tema del idioma jodido en ese momento, por la época. Mis padres eran de aquí pero no me transmitieron el euskera"

## 6.2 Eztabaida taldeetan barrena

Gaien eskema

- |   |   |
|---|---|
| 1. Euskara: Harreman eta bizipenak  | a. Inposaketak, zigorrak, ...<br>b. Errespetuaz<br>c. Zer sentitzen duzu euskararekiko?   |
| 2. Erabilera  | d. Elkarrizketa eleanitzak: Posible da? Errespetuan kokatzen ditugu? Nahi/behar ditugu?<br>e. Parte hartzea<br>f. Zergatik egiten dugu edo ez dugu egiten euskaraz? Eta gure seme alabek? |
| 3. Euskara ikasteaz: eskolako bizipenak, ikasteko motibazioak, seme alaben euskara ikastearen inguruan... |   |
| 4. Bi mundu / elkarbizitza  |   |
| 5. Familia transmisioa  |   |
| 6. Euskara etorkizunean   |   |

- |                                      |
|--------------------------------------|
| 1. Euskara: Harramanak eta bizipenak |
| a. Inposaketak, zigorrak             |

- |                          |
|--------------------------|
| a. Inposaketak, zigorrak |
|--------------------------|

Solaskideek zigor eta inposaketak sarri ekarri dituzte argira. Hizkuntza batean edo bestean arituta inposaketa edo zigorraren gaiarekin lotu dute.

Gazteleraez egitearren zigorrak

Gazteleraez egitearren, edo euskara egitera behartuta, inposaketa moduan ulertu izan duten garaiak aipatzen dituzte baina nagusiki seme alaben bizipenak ekarri dituzte gogora.

ET1\_5 "Siempre lo he entendido, no ha supuesto nunca para mí un problema. Mi relación con el euskera ha sido siempre de amor odio un poco, ha habido periodos de mi vida que lo he querido más, otros lo he odiado más porque me lo han querido imponer, y no me gusta que me impongan las cosas. Ya ahora con los críos pues sí, pero vamos, que en casa sigue siendo todo castellano"

ET1\_3 "al final esos detalles son los que te hacen aborrecer el euskera. Y es que ahora, por mis narices, no quiero ni aprender! Porque me lo estás imponiendo, me estás poniendo como una cosa que... (itomenaren soinuak) hay que hacer, hay que hacer! y llamar la atención a unos niños porque estén hablando en castellano, o sea no, al final dices, pues ahora por mis... no lo hago!"

### Euskaraz egitearren zigorrak

Adinez nagusiagoak ziren solaskide biek bestelako egoera batzuk deskribatu dituzte. Gazteagoek ere entzundakoak aipatu dituzte. Aipatzekoa da, horrelakoak mahaiganeratu direnean, solaskide batzuek agertu duten harridura, euskara hitz egitea debekatua egon dela eztabaidea taldeetan lehen aldiz entzun izan balute bezala.

ET2\_1 "cuando yo iba a clase iba a Nacionales, y al que le oían hablar en euskera, le cascaban" (beste batek dio:) ET2\_2"- ¿qué dices?" ET2\_1 "estaba prohibido en las nacionales hablar en euskera. Vamos, en la escuela de aquellos tiempos no se podía hablar en euskera !Prohibido!"

ET1\_4 "Yo le digo a mi suegra: - jo, es que tú controlas mogollón - ¿yo? ¡Si a mí de pequeña no me dejaban hablar en euskera! Tampoco les dejaban hablar en euskera" ET1\_1 "Y los castigos y... ¡Madre mía!" ET1\_3 "¿Y por qué?" ET1\_1 "El franquismo, ¡Si está claro!!" ET1\_2 (barreak) "Es que... es así" ET1\_1 "Y si el euskera se ha mantenido ha sido gracias a las ikastolas e, pero si no hubiera habido ese lado, yo no sé dónde estaríamos. Porque se prohibió totalmente. Eran... eran... ¡Clandestinas! ET1\_4 "¿Si e?" ET1\_1 "si, ¡Es una pasada! Es impresionante. Es interesante la historia, es como poner un elefante aquí, describe el elefante: - Tiene dos colmillos! Yo que le estoy viendo el culo voy a decir, - ¿Colmillos? ¿Dónde? O sea...tiene un rabo. ¡Que me estás contando!"

ET3\_3 "La historia que puedo contar es muy diferente a la de todos vosotros. Yo al ser el mayor de esta reunión. Aquella situación, estoy hablando de gente, de mucha gente, que lo tuvo que olvidar. No sabían hablar castellano, y les daban literalmente de ostias, para entendernos rápido, porque no sabían hablar castellano y tenían que hacer todo en castellano. Y no les enseñaban castellano tampoco eh. Simplemente era prohibir, prohibir, prohibir. Porque aquello no era de aprender nada."(laburtuta)

ET3\_4 "En una época fue como la cruz que les ponían a los judíos en Alemania, el euskera"

### b. Errespetuaz

Errespetuaren inguruan solaskideen artean desberdintasunak ageri dira. Batzuek euskaraz ez dakienari euskaraz egitea errespetu faltan kokatzen dute. Orokorean baina Euskal Herrian egoera hauetan gazteleraz egiten dela esaten da, eta honek euskaldunek besteekiko duten errespetuarekin lotzen da. Euskaldunek gaztelerara jo beharra ere argira ekarri dute, euskaraz ez dakienak baldintzatu egiten duela.

ET1\_4 "toda la cuadrilla de mi marido, todos, todos hablaban en euskera, cuando salía por ahí con ellos, pues era como una vela (barreak), porque toda la peña hablaba en euskera. Había veces que quería quedarme en casa. Con algunas novias de unos de la cuadrilla, se daban cuenta que solo hablaban el euskera y había alguna que, igual dos o tres de todos los que eran, pues si es verdad que me hablaban en castellano, empezaron ya, cada vez que salíamos y tal, pero bueno, las típicas que no. Al principio lo pasas mal, yo lo pasé mal al principio, luego ya pasas del tema" (laburtuta)

ET1\_1 "Yo, analizándolo desde mi punto de vista, veo que el euskera está en desventaja con el castellano e - ¡Ah! Si yo no lo hablo que me hablen en castellano. De todos los que estamos, todo el mundo hablara en euskera menos una persona, se terminaría hablando ¿en qué idioma? ... Castellano. Entonces, yo entiendo que a veces, jostras! Entonces, yo también soy consciente de como condiciono yo al de enfrente." (laburtuta)

ET2\_2 "Si, yo ando con gente que no sabe en euskera y gente que sabe en euskera y yo creo que hablan en castellano por nosotros, por la gente que no sabemos... será también por nosotros. Nunca lo hemos hablado, pero me imagino que por respeto.

### c. Zer sentitzen duzu euskararekiko?

Solaskide batek baino gehiagok euskara gertu baina modu berean urruti sentitzen duela adierazi du.

ET3\_3 "Es difícil decir que sientes del euskera, me cuesta decir lo que siento, es algo que lo tengo tan cercano, y personalmente tan lejos, porque yo soy el que no le hace ni puto caso... porque me puedo desenvolver tranquilamente, entonces, deja de ser un problema"

ET1\_1 "yo también me siento cerca y lejos. Porque realmente es un idioma que me gusta, me encantaría hablarlo y sobre todo escribirlo, es lo que más me gustaría. Pero lejos, puffff, por mis propias barreras, muchas veces, porque yo no consigo romper la barrera esa que no me deja hablarlo, no practicar"

### Euskara eta frustrazioa/inpotenzia

ET3\_4 "Yo la palabra para definir la relación que tengo con el euskera es fácil de definir, para mí es frustración. Yo con un compañero del trabajo he hablado mucho del euskera, y yo le decía a él que yo me sentía frustrada. Me parecía injusto, yo soy la mayor de tres hermanos, y me ha tocado, entre ayudar a mi madre que trabajaba, y la situación familiar tampoco era boyante. Yo me he tenido que buscar la vida. No había terminado la carrera y ya estaba trabajando, llevo toda la vida trabajando. Ahora, que tengo algo más de tiempo, es cuando me he planteado venir al euskaltegi, en teoría igual si he podido apuntarme antes pero... Yo se lo he dicho a gente euskaldun, a mí me da pena, yo no siento como ellos. Soy vasca, y soy vasca, pero no soy euskaldun. Hay un punto de frustración que nadie te puede entender. Es algo que, que tienes un vacío que es muy difícil llenar."

ET 3\_1 "A mí me da impotencia el no saber euskera. Me encantaría. Porque si lo siento. Sería capaz de hablarlo, pero sé que lo voy a decir mal, como pienso que lo voy a decir mal, no lo digo. Aunque no parezca pero es vergüenza. Si le tengo al otro detrás (semea), peor, porque encima se descojona!"

## 2. Erabilera

### d. Elkarrizketa elebidunak: Posible da? Errespetuan kokatzen ditugu? Nahi/behar ditugu?

Alde batetik, ulermen maila baxuagoa dutenen kasu batzuetan, alde batera edo bestera baina errespetuaz dihardute.

ET1\_3 "tengo el recuerdo de trabajar en bares, de entrarme una chica hablando en euskera, yo la entendí. Pero le dije que por favor me dijera en castellano que no sabía euskera, se lo dije en euskera. ¡Y me dijo que no! Pues dos problemas tienes, pues no te sirvo, o sea... No me pareció. Porque encima yo hice el esfuerzo de decírselo en euskera que yo no entendía. (beste pasarte bat azaltzen du hemen) Que no... Son detalles que no te gustan."

ET1\_2, Yo si agradecería que si sabe ella castellano, que me hable en castellano. Si no me iba a sentir..."

ET2\_3 "Mi entorno es más bien castellano, muchos saben euskera pero yo creo que es por lo que han dicho antes, para no dejar a nadie de lado, sabe que algunos no sabemos expresarnos bien y con nosotros hablan en castellano"

Elkarrizketa elebidunak beraien egunerokotasunean ematen dira, lanean, kuadrilan baina bereziki familiaran.

ET1\_5 Donde trabajo ahora todo el mundo habla en euskera, que no me supone ningún trauma, siempre... porque entender lo entiendo"

ET2\_1 "hoy es el día en que en casa mi mujer habla con mis hijos en euskera, ellos hablan en euskera, y yo contesto en castellano (barreak)."

ET2\_5 "En el monte el otro día, íbamos tres, ellos hablaban en euskera, yo entendía todo y yo hablaba en castellano"

ET3\_1 "En cambio mi mujer lleva ya un tiempo que me hace en euskera, todo." ET3\_4 "!Eso es una maravilla !"

ET3\_2 "Yo con mi prima mucho, ella me habla, me habla, lo que no entiendo le digo y yo le contesto en castellano, claro. Lo que no he entendido igual me dice en castellano pero vuelve. Ella me habla mucho en euskera"

Whatsapp taldeetan elkarrizketa elebidunak ematen dira eta positiboki baloratu dituzte, ulertzen ez denean laguntza eskatzen dute inguruan edo taldean bertan galdetzen dute.

ET1\_1 "Me encanta el whatsapp de madres que tenemos, ¿no?, que está presente el euskera, me parece fantástico, porque al principio era, todo en castellano, todo en castellano, y ahora, me parece significativo también, porque siempre hay en euskera, y también en castellano. Todo el mundo estamos como...tenemos la posibilidad, porque si no solo es o castellano o euskera, tener la relación en bilingüismo me parece... ET1\_3 "intento seguir el hilo de los whatsapp, y si no pregunto, tal no te he entendido..."

ET2\_4 "Cuándo están hablando en euskera, en un grupo, yo entiendo todo lo que están diciendo. Y te pones a pensar y cómo se dice... y al final te metes en castellano. Y ellos te siguen hablando euskera pero tú te metes en castellano."

Elkarrizketa elebidunak solaskide askok positiboki baloratzen dituzte, beraien euskara maila hobetzeko aukera bezala ulertzen dutenak ere badira.

ET2\_1 "De todas formas, tenemos que pensar que aunque no lo hablamos bien lo entendemos eh, y además a base de oír aprendes" ET2\_2 "Y además les hace ilusión que vean también que pones de tu parte..."

ET2\_1 "O sea, vamos a lo cómodo. Los que saben euskera también... bueno, ese no sabe bien, y... mejor en castellano, así me cubro las espaldas. Y uno mismo también, por no esforzarse un poco... ¡que bien que me hablan en castellano! Aunque si me hablan también en euskera, a lo mejor me estaban haciendo un favor. Así te vas quedando con todo claro. A base de machacar se te van quedando las cosas." ET2\_2 "aprenderíamos más."

ET2\_2 "Al final si te enteras de bastante, igual es un fallo, que a lo mejor todos tendrían que hablar... (euskaraz suposatzen da).

Solaskide askok, egoera batzuetan, beraiei euskaraz egiteko eskatzen dute, euskaraz egiten duenak euskaraz aske egin dezan edo beraiek ikasteko.

ET1\_4 "en el trabajo, a veces le digo a mi compañera, pues sí, venga, háblame en euskera. Me dice en euskera, no se contestarle en euskera y le comento en castellano"

Baina eskatu arren inguruko euskaldunek gazteleraz jarraitzen dutela nabarmendu dute.

ET3\_1 "mi hijo automáticamente cuando habla conmigo, taca, erderaz. Y le digo - jeh! háblame euskera, que te entiendo - a, que tú no sabes".

ET2\_2 "Mi marido por ejemplo, yo veo que no tiene paciencia, yo lo dije, dime por lo menos todos los día una frase y así aprendo, pero claro, yo le entiendo a él, es que pierde al final la paciencia. Entre que lo entiendo, lo repito, lo digo de cuatro formas diferentes, al final se pierde, él también está acostumbrado a hablar más de prisa... ellos también, otras..." (laburtuta)

ET3\_1 "Yo cuando voy a Eibar, me ven, y a mí pun! En castellano. Que estoy harto de decirles, Que me hables en euskera, coño, que... te entiendo. Si no entendería ya diría yo, no entiendo. Pero es que lo entiendo todo. Creo (barreak)" (laburtuta)

ET3\_3 "En mi cuadrilla todos saben en euskera, sin embargo, si nos ponemos a cenar, todos hablan en castellano. Y yo soy el que normalmente les digo, pues oye, volver donde tenéis que estar ¿no?

Elkarrizketak elebitan hasi baino bukaera bestelakoa dela adierazi dute

ET2\_1 "En mi caso también hay bastantes conversaciones que empiezan en los dos, pero al final... Por comodidad, tú hablas en castellano." ET2\_6 "Te hablan en euskera, tú por no meter la zanca empiezas en castellano, y al final, ellos también piensan, esta no, no... y al final todos en castellano" ET2\_1 "Si, la verdad es que luego esas conversaciones terminan en castellano"

ET2\_3 "En ese sentido hay gente que vuelve a la carga, y siguen en euskera, pero normalmente, cuando han visto que tú has empezado con tus dos frases en euskera y luego cambias al castellano, ya cambia, al día siguiente te dice - ¿Qué pasa? No te va a decir – Kaixo, zer?

ET3\_5 "En el curro les digo que me hagan pero no sale. El rollo de que, el que siempre te ha hablado en castellano les cuesta muchísimo, le cuesta hablarte en euskera, y eso me pasa con X (bere emaztea). Le cuesta hablarle en euskera mucho, aunque yo luego le responda medio en euskera, medio en castellano."

## Euskaraz egiteko eskatzen digute baina lehenago beste pausu bat ere badago

ET3\_3 "Mi mujer: - joe, no hablas nunca. - Pues no hablo, porque, porque la verdad, tú me estás hablando en castellano. - Pero, si te hablo en euskera te enfadas. - Joe, eso es lo que tú crees. ET3\_5 "El que habla euskera, por ejemplo, tu pareja, quiere que ya hables euskera, y tampoco es eso. Tú háblame euskera, que yo te contesto en castellano, llega un momento que igual incluso empiezo, porque a ti igual te cuesta, pero a mí me cuesta la ostia!"

## Elkarrizketa elebidunak arraroak egiten zaizkiola esan du batek

ET2\_3 ¿Bilingüe? uno en castellano y otro en euskera, no sé. A mí se me hace muy raro, no suele pasar.

### e. Parte hartzea

Herriko ekimen edo jardueretan (bilera, ikuskizun...) parte hartzeko hizkuntza oztopo den ala ez galdezu zaie zuzenean edo eztabaidan bertan gaia irteten joan da, esaterako, elkarrizketa elebidunen kasuan gai hau ere agertu da behin baino gehiagotan (bilerak).

Elkarrizketa elebidunetan bezala, ulertzeko zaitasun gehiago dutenak baldintzatuta sentitzen dira

ET1\_3 "Sí que habido conferencias, aquí en el Antzoki, te mandan igual el papel de la ikastola, y te pone... va ser en euskera, pues yasta, ya no voy porque no voy a entender. Entonces ya me condiciona"

ET1\_2 "Como no sabes hablar bien es más escuchar, porque luego para participar... como no sabes hablar muy bien en euskera, pues igual meto aquí una zanca que ya verás! (laburtuta)

## Bileretan ulertzen ez dutena galdetzen dutenak ere badira

ET1\_5 "Yo de preguntar no me corto. Ahí no os tenéis que cortar, ¿Qué habéis dicho? Piojos. Esa palabra no me entraba a mí... ¿Qué estáis diciendo? - Piojos. Ahora ya me ha entrado que es... zorriak! Pero... que no te tienes que quedar...sino te hacen sentir mal, y que no. (laburtuta)

ET3\_3 "Luego, cuando estoy en alguna reunión a mí me jode decir que se haga en castellano. Yo me puedo perder cositas, siempre me puedo buscar la vida para preguntar, oye esto ¿Qué habéis comentado? Luego, yo también tengo días, tengo días en que soy totalmente sordo, no entiendo niiii bai. Es algo que llevo conmigo, me cierra en banda, no sé por qué es eso, eso es algo que algún día tengo que descubrir". (laburtuta)

ET2\_1 "Yo si he ido a mesas de participación, que eran todo en euskera, y lo que no me enteraba preguntaba. No he tenido ningún problema en ir o no ir por el idioma"

Bilera batzutan, gaztelera euskaraz baino azalpen askoz laburragoak edo gutxiago ematen dira, eta kexu dira.

ET1\_5 Las reuniones yo por ejemplo si entiendo, y a veces flipo, porque en euskera, todo lo que ha dicho, y luego en castellano, en tres palabras ha dicho todo. El que realmente no entienda, dan

muchas más información en euskera que en castellano! Yo como ya entiendo... yo ya lo he entendido, pues... Eso que gano pero..."

ET1\_1 "Yo iba con mi marido, que le gusta ir a ese tipo de reuniones, hubo un momento en que dijo, ¡Ya no vengo! Para que le traduzca simultáneamente yo y en castellano con una diapositiva, con una frase en castellano, el otoño, y ya está. Vale, van a hablar del otoño, ¿pero qué van a hacer? Mi marido ha dejado de ir, le encantaría ir, y participar en un montón de cosas, pero... yo no tengo problema, yo entiendo absolutamente todo, cuando hacen preguntas también, y si tuviera alguna duda la haría en castellano, porque sé que me van a contestar, pero la gente que no sabe... que no entiende... creo que ahí está el problema, y luego la sensación frustrante"

Gurasoetako bat euskalduna eta bestea ia euskalduna den kasuetan erabilera %13,6 da Soziolinguistika klusterrak egindako lanaren arabera eta eztabaide taldeetan ez da bestelakoik agertu. Solaskideen artean bikotearekin egiten dutela aipatzen dute batzuk baina gehiengo batek gaztelera egiten dutela diote.

- Gurasoentzako euskararekiko jarrera eta eritzia

	Guztira
Hizkuntza bi edo gehiago jakitea abantaila da haurrentzako garapen intelektualerako	98,0
Eskola tresna baliagarria eta egokia da haurrek euskara ikas dezaten	96,3
Garrantzitsua da haur guztiak euskara ikastea	92,3
Euskara gurea den zerbait da	81,4
Euskara beharrezko hizkuntza da	80,0
Haurrek euskaraz hitz egiteko toki eta ekintza gehiago izatea gustatuko litzai guke	78,6
Euskara gizarte kohesio eta integrazioarako tresna baliagarria da	74,6
Euskara hizkuntza zaila da	52,4

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoentzako hizkuntza ohituren azterlana, 2015. Soziolinguistika klusterra.

Eztabaide taldeetatik orden zehatz bat egitea ez da erreza baina eztabaide taldeko guraso ia euskaldunek esandakoetatik ordena apur bat aldatuko litzateke. Hizkuntza zaila da askoz gorago egongo litzake, euskara gurea den zerbait da beherago eta euskara gizarte kohesio eta integrazioarako tresna baliagarritzat kokatzen dutela baino eskola kokatu dute kohesio eta integrazioarako tresna bezala, eskola = euskara lotura egiten dutela kontuan izanda baieztago honi puntu asko emango liokete.

- Ikasleen gaitasun erlatiboa

	IKASLEEN ERANTZUNA			IRAKASLEEN ERANTZUNA			
	Guztira	LMH	DBH	Guztira	HH	LMH	DBH
Euskal elebiduna	26,6	29,9	20,2	27,7	40,3	26,3	16,7
Elebidun oreaktua	33,7	37,1	27,2	25,1	18,5	25,4	31,6
Erdal elebiduna	26,0	20,5	36,8	31,0	16,9	34,8	38,6
Elebidun hartzailea	11,8	12,1	11,4	14,9	22,6	12,9	10,5
Erdalduna	1,8	0,4	4,4	1,3	1,6	0,4	2,6
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
(n)	338	224	114	462	124	224	114

**Iturria:** Soraluzeko haur, gazte eta gurasoentzako hizkuntza ohituren azterlana, 2015. Soziolinguistika klusterra.

Gaitasunaren gaia asko sinplifikatu da eztabaide taldeetan. Euskaldunak izango dira eta punto. Batzuk erreztasun gehiago gaztelera egiten dutela aipatzen da momenturen batean baina nahiko orokortua da elebidun oreaktua izango direla edo direnaren ideia. Hala ere, kontraesanetan sartzen dira momentu batzuetan eta ulertu behintza egingo dutela esaten dute.

## 7 Ondorio eta hausnarketak

---

Hizkuntza gaitasunaren kategorizazioa sinplifikatu egiten da. Euskaldun eta erdaldunak, ia euskaldunak ez dira existitzen.

Solaskideek sarri erdaldunen perfila izango balute bezala jardun dute, euskara ulertzen dutela aurretik esanagaitik ere. Kalean ere oso orokortuta dauden terminoak dira euskaldun eta erdaldunena, ia euskaldun edo bere parekoak ez diren terminoak ez dira ezagutzen. Amorrorturen lanarekin alderaketa egin denean ere, erdaldunekin gauza askotan berdintasun haundia dagoela ikusi da eta berriz ere euskararen ulermenta ez dutela modu kontzientean bizi ageri da. Aurreiritzi eta pentsamendu kategorikoa (10.orrialdea)

Kategorien sinplifikazioarekin jarraitzeko, ia euskaldunen barruan ere pertsona batetik bestera alde nabarmena dago, lan honetan 3 kategoriatan banatu ditugu baina proposamen bat besterik ez da izan, batzuk nekez ulertzen dute, beste batzuk apur bat gehiago eta beste batzuk asko. Asko ulertzen dutenek haien kategorizazioa ia euskaldunetan kokatzetik gertuago dagoela dirudi, kontzienteagoak dira. Asimilazioa eta kontrastea (11.orrialdea)

### Guraso ia euskaldunak eta elkarrizketa elebidunak

Kasu honetan oso nabaria izan da solaskideen arteko ezagutza mailak baduela garrantzia. Gutxi ulertzen duten gurasoek elkarrizketa elebidunak ez dituzte modu argian irudikatu, parekoak euskaraz egiten badiete errespetu faltarekin lotu dute sarri eta gazteleraz nahiago dutela ere agertu da. Multzo honetako batek aldiz ikasteko aukera bezala hartu du elkarrizketa elebidunen gaia. Asko ulertzen dutenen kasuan, elkarrizketa elebididunen haien praktika batzuk ere ekarri dituzte gogora baina bereziki hauen beharra eta eskaera aipatu behar da, aurrean dagoena errespetatzeaz gain euskara ikasteko baliabide bezala ikusi dute. Seme alabekin egiteko praktika moduan gutxitan irudikatu dute eta ez dute egin aipamenik seme alaben aurrean elkarrizketa elebidunen parte izateak garrantzia izan dezakeen ala ez. Eta erreferentzialtasunaren garrantzia ikustaraztea ona litzake, seme alaben euskararen jardunean asko eragiten baitu.

### Eskolari ezartzen zaion gainkarga eta errealiitatearen desitxuratzea

*B edo A eredua (guraso ia euskaldunen/erdeldunen eredua) = ez dugu euskara ikasi  
D eredua (seme alaben eredua) = euskara ikasiko dute eta maila ona lortuko dute*

Kasu honetan ere sinplifikaziora jotzen da. Haien ez dute izan seme alabek izan duten aukera eta aukera hori oso positibotzat jotzen dute eta emaitza ere, haien izan dutenaren aurkakoa izango dela ondorieztatzen dute. Argi dago D ereduak asko egin duela eta eskolagaitik izan ez balitz egoera guztiz bestelakoa izango litzatekeela.

Eskola eta euskarari lotutako beste gai interesgarri bat ere agertu da eztabaidea taldeetan. B eta A ereduetan ez direla euskaldundu esan dugu lehen ere, gainera euskara erakusteko modua oso eskasa izan zela aipatzen dute, metodo eskasak. Gaur egun baina D ereduaren beharrezkotasuna egonik ere, haurrak batzutan behartuta sentitzen direla, eskolatik

irtetzean askatasuna arnastu eta gaztelerara jotzen dutela aipatu da. Beraz, gaur egungo sisteman ere akats pedagogikoak ikusi dituzte. Seme alabek ez egitearen arrazoia askotan hemen kokatzen dutelarik.

### Gurasoek asko egin dezakete motz

Gurasoek haurren euskararen erabilera edo ikas prozesuan lagundu dezaketela argi dutela adierazi badute ere, egunerokotasunean honi lotuta egiten dituzten praktikak oso eremu murritzean gelditzen dira, ez dago hausnarketa sakonik; niri egiteko esaten diot, euskarazko marrazki bizidunak ipintzen dizkio, ... Bainan honen aurrean ez dute jarrera irmorik agertu eta estrategia falta argia agertu da, egunerokotasunean egiten dituzten ahalegin guzti hoiei balorerik kendu gabe noski.

### Bi mundu / elkarbizitzta

Lehenago aipatu bezala, bi munduen arteko distantzian Soraluzen zeuden eskola biak kokatu dira. Soraluzen, ikastolen publifikazioaren garaiekin batera, ikastola publifikatu eta dena eskola bakarrean gelditu zen, eskola bakarra eta eredu bakarra (D).

Gaiak luze jo lezake eta eztabaidea taldeetan izan duen garrantzia kontuan izanda, Soraluzeko normalizazio prozesuaren onurarako aztertu eta hausnartzeko gaia badela esango nuke. Kasu honetan ere, irakurketa sinplifikatu egin da baina horrekin ez da esan nahi, orduan bizi izandako pasarteeek garrantzirik ez dutenik.

Eztabaidea taldeetan esandakoekin hau ondorieztatu daiteke:

- Eskola bi = mundu bi elkarren kontra harrika
- Eskola bat euskaldunena bestea erdaldunena (estatutik etorritako seme alabena) = euskaldunak eta erdaldunak harrika
- Eskola bitik batera = eskola erdalduna + eskola euskaldun = eskola euskalduna
- Eskola bi=gatazka (euskarra vs gaztelera) eskola bat = elkarbizitzta (hizkuntzak orekan)

Baina eskema hauetako askoz konplexuagoa izan zen garaia, eta 1+1 ez da beti 2 izaten. Eskola publikora (nazionalak) baserriko jendea ere joan zela jakina da eta ikastolara erdaldunak. Bi mundu egon bazeuden eta harriak benetakoak ziren, baina Soraluze bezalako herri batean jendearen artean bestelako interakzio bat ere bazegoan (futbol taldea, dantza taldea, bizilagunak, auzoak, herriko jaiak...)

Eskema horren arabera, gaur egun elkarbizitzta dago herrian. Elkarbizitzta gehiago edo gutxigo ez dakit, baina ibilbide horretan euskara non gelditu den aztertzea ondo legoke, goian egindako eskemaren baitan hizkuntzak orekan daude, eskolak batu eta orekatu ditu. Alkarrekin prozesuko txostenean aldiz, eskolen elkartzea euskararen kaltetan izan dela jaso zen. Eztabaideak ertz eta hari asko ditu eta benetako elkarbizitzta bat eraikitzea eta euskara azpiratua ez izateko proposamen eta egitasmo sakonak egin beharko dira. Aurrera begirako proposamenean, ez da gai hau guztiz alboratuko, baina duen garrantzia eta pisua kontuan hartuta, tamainako erantzun eta planteamenduak beharko dituela mahai gainean jarri nahi da. Gaur egun, eleanitzasuna eta etorri berrien gaiari elkabizitzako ariketa eredugarri batekin erantzun nahi zaio batean eta bestean. Egitasmo eta bide hauetan duten balorea kendu

gabe noski baina aurretik lanen bat egin gabe dugunaren sentsatzioa agertu nahi da hemen. Posible al da hizkuntza aniztasuna bide onetik eramatea, aurretik gai honek dauzkan antzekotasunak bizi izan baditugu, eta ez baditugu ganoraz bideratu, aztertu edo eta itxi? Iraganari hizkuntza eta elkarbizitzaren terminoetan begiratu gabe ongi egingo al dugu etorkizuneko ariketa?

### Inposaketak, zigorrak eta euskararen historia

Aurreko gaiarekin lotzen da bete betean eta hau ere mimoz landu beharreko gaia dugu. Dena den bi ondorio nagusi agertu zaizkigu gaiaren inguruan:

- Guraso ia euskaldun batzuk (eztabaida taldeko erdiak?) gehienetan euskaldunon ahotik entzundako historiak haien ahotan ere badaude, euskarak bizi izan duen zapalkuntza ezagutu dute eta oso egoera injustu bezala kokatu dute.
- Guraso ia euskaldun batzuk ez dute inoiz euskararen historia beltzaren pasarterik entzun
- Gaur egungo kolorea eta etorkizunekoa baina Amorroturen lanean bezala kolore arroxaz tintatzen da, euskarak osasun ona du eta etorkizun ona ikusten diote.

-----

Guraso ia euskaldunekin, elkarrizketa elebidunei begirako aukera bat zabaltzen dela esango nuke. Badago euskara ondo ulertzen duen guraso euskaldunen kopuru bat herrian eta gainera bide honi begirako prestutasuna agertu dezaketenaren zantzuak agertu zaizkigu. Beraz, hizkuntza ohituren aldaketeri begira, kasu honetan ezagunen artean, bi kontu garrantzitsu ditugu aurrez aurre:

- Aurrekoak ulertzen duela badakigu
- Aurrekoak ulertu eta bide hau garatzeko nahi bat, prestatasun bat badago.

Elkarrizketa elebidunen bide honek gainera, haur eta gazteen erabilera eragiteko baliogarriak izan daitezke. Guraso ia euskaldunen bidea eredugarri egin eta praktika onak landuz, haiengana euskara gehiago gerturatuz, Soraluzetarren bizitzan euskara presentzia areagotuz.

**Aurretik egin ez dugun elkarbizitza ariketa txiki bat ere izango da aurrez aurre duguna, erronka polita!**

Hortaz, Soraluzeko euskararen egoera grisa, apur bat bada ere, alaitzeko aukerak badaude. Zergatik ez probatu?

## 8 Guraso berritsuak - Guraso ia euskaldunekin euskaraz!

### 8.1 Sarrera

Guraso ia euskaldunak eta euskara azterketan jasotako ondorioak kontuan izanda, egitasmo berri bati ekiteko nahikoa baldintza badaudela ikusi da, elkarritzeta elebidunei bultzada berri bat emateko baldintzak badaudela agerian gelditu da, beraz euskararen erabileran sakontzeko bide posible bat dugu esku artean, hizkuntza ohituren aldaketan sakontzeko bide posible bat.

Erronka berri honetan eztabaidea taldeetako kideak kontuan hartuko dira eta haientzat egokitutako proposamena luzatuko da, beti ere haien nahia errespetatuz noski. ET-eten parte hartu ez duten gurasoei ere zabalduko zaie parte hartzeko aukera.

Proposatuko diren dinamika hauetan, gurasoak izango dira protagonista nagusi, baina zeharka eta familiaren aldaera batean zuzenean, haur eta gazteen erabileran ere eragingo da, gurasoak baitira haur eta gazte hauen erreferentzia eta eredu.

Balizko bi bide, bi prozesu pilotu:

EREMU PRIBATUAN: Familian	AISIALDIAN: Mendi Taldeko irteerak
Guraso ia euskalduna + bikote euskalduna  edo  Guraso ia euskalduna + Seme-alaba (k)	Soraluzeko umeen Mendi taldea  GURASO ia euskaldunak + euskaldunak

Guraso ia euskaldunen azterketaren ondorioek elkarritzeta elebidunen aukerak argira ekarri baditzte ere, hizkuntza ohiturekin lotura duten gai klabe batzuk ere kontuan hartuko dira pilotajea abiatu aurretik. Euskararen inguruan bizipenak, minak, aurreiritzia eta errealityearren irakurketa desberdinak agerian gelditu dira azterketan. Beraz, egoeraren iritziak, bakoitzaren bizipen eta sentsazioak konpartituz, talde bezala zein pertsonalki urratsak emateko onuragarria izango den dinamika batekin abiatzea proposatzen da, 0 unea deituko den lehen urrats bat.

## 8.2 Aurrekariak eta proposamen berrirako egokitzapenak

### Gurasoek asko egin dezakete

Gurasoen jarrerek, iritziek, portaerek badute eragina seme alaben hizkuntza ohituretan. Lan ta lan web atarian honela idatzi zuen Amaia Baldak (EMUNeko teknikaria) “Azkenaldian kanpainak egin dira gurasoak eredu direla azpimarratzeko eta ohartarazteko gurasoek euskaraz jakin arren gaztelaniaz egiten badute, seme-alabek etorkizunean ere ez dutela egingo. Horren aurrean, gurasoek aipatu dute hizkuntza arloan, beste arloetan bezalaxe, seme-alabentzat eredu direla. Baino bat du, ordea, baieztapen horrek. Ez dute uste euren jokaera determinatzailea denik. Lagunartea, auzoak, eskolak, teknologia berrieik ere eragiten dute seme-alaben hizkuntza ohituretan”<sup>12</sup>

Faktore hoien nolakotasuna gurasoek ezin dute guztiz kontrolatu, baina oinarri sendoa jarri dezakete; seme alabek euskara leku askotan, askorekin eta asko hitz egiteko bidean lagunduz. Bide horretan gurasoei laguntzeko, egitasmo/tresna ugari sortu da azken aldian Euskal Herrian.

Iñaki Eizmendik<sup>13</sup> Ebete aholkularitzaren bidez. Euskararen erabiliera sustatzeko baliabide eta tresnak eskaintzen ditu irakasle, guraso, hezitzaile eta gazteentzat.

Gurasoei lotutako baliabide eta tresnetan hiru bide zabaltzen ditu, lehengoa da aurrera begirako proposamenerako kontuan hartu dena.

- Gurasoen Euskara Batzordeak – guraso berritsuak - : seme-alaben hizkuntza-ohiturekin arduratuta dauden gurasoek osatzen dute. Seme alabek lagunartean eta beste hainbat harreman eta egoeretan euskaraz egitea nahi lukete, eta horretan lagundi nahi diente seme-alabei. Bide horretan, guraso bakoitza bere kabuz saiatzen da oinarri on bat eskaintzen, baina horretaz gain gurasoak bildu eta modu antolatu batean ere aritu daitezke. Soraluzen 2015ean sortu zen Guraso Euskaltzaleen Batzordea<sup>14</sup> eta proposamen berrirako dinamizatzaile eta sustatzaile izan daiteke.

Beste bi bideek hitzaldiak dira:

- Euskaraz ez dakiten gurasoentzat hitzaldiak eta guraso euskaldunentzat hitzaldiak.

<sup>12</sup> <http://www.lantalan.eus/tag/guraso>

<sup>13</sup> Iñaki Eizmendi Arsuaga, Lasarte-Oria. Ebete euskararen erabilera sustatzeko baliabide eta tresnak zerbitzuaren sortzaile. Informazio osatuagoa [www.ebete.eus](http://www.ebete.eus)

<sup>14</sup> Pilpilean Euskaltzaleen Topagunearen <http://plaentzia.eus/komunitatea/Pil-pilean> baitan antolatzen da. Kontzentziazo kanpaina batekin abiatu zuen batzordeak bere ibilbidea eta ostean “guraso berritsuen tailerrak” antolatu zituen <http://plaentzia.eus/soraluze/1461697305676>

Paula Kasaresek <sup>15</sup> ere guraso erdaldunei zuzenduta *entra un idioma en casa* hitzaldia eskaintzen du<sup>16</sup>. Euskara ez dakiten hainbat gurasoen kasuan, seme-alabak eskolan hastea izan daiteke etxera euskara sartzeko lehen urratsa. Hitzaldi honetan horri buruz hitz egiten da eta hainbat aholku ematen zaizkie gurasoei seme-alaben hizkuntzekiko, eta bereziki euskararekiko, balio positiboak nabarmenduz harreman egoki bat izateko tresnak eskaini nahi zaizkie gurasoei. Esan behar da, gai honetaz gain, Paula Kasaresek oso ibilbide oparoa izan duela soziolinguitikaren munduan eta gaur hemen lantzen ari garen gaiarekin ere (euskararen familia transmisioa, guraso erdeldunak...) lotura estuan aritu da. Paula kasaresi Eitb-rako egindako elkarritzeta bateko ideia nagusiak ekarri dira lan honetara, *la lengua se aprende en la vida, no solo en las aulas*:

- Familia erdaldunek ere euskararen berreskurapenean paper oso garrantzitsua jokatu dute. Guraso askok, euskaraz jakin gabe ere, haien seme alabek txikitatik euskara hitz egingo dutela erabaki dute.
- Familiak oso heterogeneoak eta anitzak dira. Familia bakoitzak bere bizikidetzarako forma linguistikoa garatzen du. Haien zonaldeak duen egoera soziolinguitikoa eragina izan lezake, familiek haien kanpo egoeraren eragina jasotzen dute. Seme alabak ere faktore garrantzitsuak dira. Haiek dakarte berrikuntza linguistikoa etxera eta horrek ere eragina du familiaren hizkuntza erabilera.
- Eskola, instituzioak eta familia. Bakoitzak bere funtzio eta garrantzia izango du hizkuntzaren aferan eta zeregin partekatu hau zaintzea ezinbestekoa da.

Elkarritzeta bukaeran honela dio: “*Yo les diría a las familias, sea cual sea su tipología lingüística, que pueden implicarse activamente en el proceso de aprendizaje del euskera por parte de sus hijos. No solamente que puedan, sino que es conveniente que lo hagan, motivar es algo que está en manos de cualquier padre y madre, separan euskera o no, porque es acompañar, es interesarte, es involucrarte, y es lo que los niños necesitan*”

Esan bezala gaur egun euskararen transmisioa eta haur/gazteen erabilerari lotutako gurasoentzat tresnak ugariak dira (eman giltza, gurasolagunak...).

Proposamereako aipatutako bi hartuko ditugu kontuan:

- 1- Iñaki Eizmendi berak dinamizatuta sortu zen Soraluzeko Guraso Batzordearen ibilbidean jarraitzeko. Guraso berritsuak.
- 2- Paula Kasaresen entra un idioma en casa ideia hartu eta hona ekarriko da. Guraso ia euskaldunaren bikoteak euskaraz ez dakienean edo familia guraso bakarrekoa den kasuetan, haurraren figura hartuko da kontuan. Paula Kasaresek dioenari kasu eginez, gaur egun familietan ohikoa da umea izatea euskara familiarra dalarrena, beti ezagutu dugun goitik beherako eredu aldatzen ari da kasu askotan, eredu trasbersala edo behetik gorakoak ugaritzen ari direlarik.

<sup>15</sup> Paula Kasares. (Iruña, Nafarroa, 1969) Euskal Filología eta Gizarte eta Kultura Antropología ikasketak egin eta gero, Soziolinguistica jorratzeari ekin zion. Bartzango euskara teknikaria izana, egun Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle elkartua.

<sup>16</sup> Sarean hainbat bideo ikus daitezke: <https://www.youtube.com/watch?v=l6nFOxnOWsY>,

<https://www.youtube.com/watch?v=iyxZVrh7ffU> laburpena <https://www.youtube.com/watch?v=AN5VP2ah9DY>

### **Euskaldun eta ia euskaldunen aurreiritzi eta bizipenak**

Sakontze egitasmo honen aurrekarietan aipatutako lanetan zein guraso ia euskaldunekin egindako ET-etan kontuan hartzeko baieztapenak daude. Soraluzen, honen inguruko lan sakon eta zehatzik egin ez bada ere, batzuk besteengan jartzen duten ardura eta aurreiritziak agerian gelditu dira “Soraluzeko Plan estrategikorako diagnostikoa, 2014” eta “Soraluzeko haur, gazte eta gurasoentzako hizkuntza ohituren azterlana, 2015” txostenetan. Iku 6.3 aurrekarien alderaketa puntuak. Proposameneko lehen urratsean landuko dira gai hauek, sarreran aipatutako 0 unea.

### **Bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketa. Ikerketa-lana. Soziolinguistika klusterra**

“Bikoteen artean hizkuntza ohitura aldaketa” ikerteketa lanean<sup>17</sup>, hiztunak haien artean guztiz ezagunak dira eta ohitura aldaketa eman ahal izateko berderatzi gako estrategiko hauek garrantzitsua bezala kokatu dira:

1. Dosifikatu. Errezetik zailena
2. Nekatutakoan edo “agobiatutakoan”, gaztelania ere erabili
3. Gaitasun estrategikoa. Non elikatua bilatu eta lorpenak baloratu
4. Prozesuaren zaintza
5. Une batean pausoa eman.
6. Bolada batez, ikasten buru belarri
7. Bat bestearen irakasle
8. Ikasi eta erabili batera
9. Euskaraz dakitenei euskaraz
10. Beraien artean euskaraz, seme alabekin erabat euskaraz

Estrategia hauetan, erabilerarako saltoa bikoteko kide biek egin dute, beraz proposatuko den egitasmoan badago aldea (guraso ia euskaldunak erabilera erraztuko badu ere ez da erabilerarako saltoa proposatzen), hala ere, gako estrategiko hauek elkarritzeta elebidunak gehitzeko orduan ere oso baliagarriak izango dira eta kontuan hartuko dira.

### **“Aldahitz ikerketa 2014 – eusle metodologia eta hizkuntza ohituren aldaketa lan munduan”**

**Pello Jauregi eta Pablo Suberbiola.**


Azterketa honen teorizazioa eta metodologia oinarri hartuko dira baina xede taldea eta gunek oso bestelakoak izanik, Soraluzeko kasu honetarako metodologian beharrezko egokitzapenak egingo dira. *Aldahitz* egin bezala, oraingo proposamen hau ere pilotaje moduan kokatu nahi da. Esperientzia abiatu, eta prozesuak emango dituen emaitzak

---


<sup>17</sup> SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA. IKERKETA LANA. 2009. Bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketa. Ikerketaren emaitza eta ondorioen laburpena: <http://www.soziolinguistica.eus/files/Bikoteen%20ohituren%20Tx%20Lab.pdf>  
Eta metodologiaren laburpena bideoan: <https://www.youtube.com/watch?v=VPkhB7QazHY>

kontuan hartuta, Soraluzen, bide honetan, arnas luzeagoko egitasmoa mamitzeko aukeretan sakontzeko beharra eta nahia dagoen ala ez ikusiko delarik. *Aldahitz* ikerketak hainbat fase izan ditu eta 2014an egindako eusle metodologiaren aplikapena izango da kontuan.

- **Eusle metodologia:** Lantoki/langune batean, eguneroko harremanak dituzten lan talde bat hartuko da, eta lan talde horretan hizkuntzaren ikuspegitik dinamika berri bat sortuko da. Helburua, beti ere euskararen erabilera areagotzea. Helburua bera izanik ere, proposatzen den egitasmo berri honetan lan gune bi proposatuko dira, bata metodologia honekin nahiko lotura estuan dagoena, aisialdiari lotutako proposamena. Bestea talde ikuspegitik aldetzen bada ere euslearen metodologian oinarrituko da.
- **Metodologiaren oinarriak:** Aplikazio “simplea”. Eguneroko lan harremanetan aplikatzen da. Oinari hau oso garrantzitsua izango da proposamen berri honetan eta hurrengo bi baldintzak ere kontuan hartuko ditu:
  - Borondatezkoa: esku hartzean parte hartzen duen taldeak erabakitzentzu parte hartzea esku hartzean.
  - Talde horretako kide guztiak euskaraz ulertzeari. Ez da derrigorrezkoa taldeko kide guztiak euskaraz egiteko gaitasuna izatea baina bai gutxieneko ulermen maila bat izatea.
- **Euslea da funtsezko figura:** Proposamen berrian eusleak eta eusle lagunak (guraso ia euskaldunak) izango dira funtsezko figurak.
- **Prozesua eta emaitza orokorrak**
  - Metodologiaren aurkezpena eta erabakia. (7 iker-gunetan)
  - Neurketa 3 momentutan eta 3 fitxa simplerekin.
    - 1: Prozesua abiatu aurretik. Esku hartzea hasi aurretik
    - 2: 2 hilabeteren ostean bigarren neurketa. Esku hartzearen ostean
    - 3: 3 hilabeteko atsedenaren ostean azken neurketa. Finkatzea



### 8.3 Guraso berritsuak. Guraso ia euskaldunekin euskaraz!



#### Aplikapenerako guneak / ekimenak

Aplikapenerako guneak aukeratzeko bi aldagai izan dira kontuan:

- Eztabaidea taldeetan parte hartu duten gurasoek parte hartzen duten guneak izatea: ET-etako ahalik eta solaskide gehien aurrera begirako egitasmoan parte izateko aukerak aztertu dira. Solaskide izan diren guraso ia euskaldun hauekin aurrelan bat egina dago jada lan honen azterketarekin, eta aukera baliatzen saiatuko da.
- Kuantitatiboki edo eta kualitatiboki pisua duten gune naturalak:
  - Eragin kuantitatiboa: Guraso asko harremanetan dauden gunea izatea
  - Eragin kualitatiboa:
    - Gurasoak haurrekin batera dauden guneak izatea, ekimenaren bitartez haurrengan eragiteko aukera ematen dutenak.

Aldagaiak kontuan izanda aplikapenerako bi aukera posible:

- Eremu pribatuak, familian: Soraluzeko guraso berritsuak familian
- Aisialdian: Soraluzeko Mendi Taldeko guraso berritsuak

Prozesuak bi aplikapen bide izango dituen arren 0 unea deituko den aurre dinamika bateratu batekin abiatuko da.

### Proposamenaren eskema

0 gunea bi saio	
Soraluzeko euskararen egoera: datuen aurkezpena eta eritzi trukatzea	
Bizipenak eta aurreiritzia: Bi munduen arteko arrakala gainditu	
Gurasoak asko egin dezakegu	
Egitasmoen azalpena eta aukeraketa	
Guraso berritsuak familian	Mendi taldeko guraso berritsuak
Oinarria eusle metodologia, bikoteen azterlana eta entra un idioma en casa.	Oinarria eusle metodologia
Iraupena 2 hilabete	Iraupena irteeren egutegiaren iraupena
Parte hartzaleak <b>euslea</b> bikote eus / seme alaba(k) <b>eusle laguna</b> guraso ia eus	Parte hartzaleak <b>eusleak</b> guraso eus <b>eusle lagunak</b> guraso ia eus
Prozesua: 2 saio 3 ebaluazio momentu Kasu honetan parte hartzaleen fitxak eta saioetako balorazioak erabiliko dira neurgailu gisa (euren aitorpenetik)	Prozesua: 2 saio 3 ebaluazio momentu Mendi taldearen egutegira egokitu da prozesua
besteak eusleak seme alabak diren kasuetarako lanketa berezia egingo da. Ez da ardura haien gain jarriko	besteak eusleak eta eusle lagunak mendian errez identifikatzeko bitartekoak jarriko dira

Proposamenaren zehaztapenak eranskina II

## 9 Bilbliografia eta erreferentziak

---

AMORRORTU, Esti; ORTEGA, Ane; IDIAZBAL, itziar; BARREÑA, Andoni. 2009. Erdaldunen euskararekiko aurreiritzia eta jarrerak. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.

ALKARREKIN Soraluze eginez; ELHUYAR Aholkularitza Zerbitzua. 2014. Soraluzeko Plan estrategikorako diagnostikoa.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA; AZTIKER SOZIOLOGIA IKERGUNEA. 2015. Soraluzeko haur, gazte eta gurasoien hizkuntza ohituren azterlana.

AIZPURUA, Jon. 2015. 3.1. Euskal Herriko hizkuntza egoera: statusa. *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista*. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea.

TOPAGUNEA; SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA; URTXINTXA ESKOLA. 2009. Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua.

<http://www.soziolinguistica.eus/files/GazteenHizkuntzaErabileranEragitenDutenFaktoreenAzterketal.pdf>

HIZKUNTA POLITIKORAKO SAILBURUORDETZA. Eusko Jaurlaritza. 2011. V. Mapa Soziolinguistikoa

AGUILAR-MORALES, J.E. 2011. Prejuicios, estereotipos y discriminación. Network de Psicología Organizacional. México: Asociación Oaxaqueña de Psicología A.C.

MARTINEZ Zesar; BERRIO-OTXOA Kontxes; ALTUNA Olatz; JAUSORO Nekane. 2015. 2.1 Ikerketa soziolinguistikorako ikerketa eta teknikak. . *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialistak*. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea.

AMORRORTU, Esti; ORTEGA, Ane. 2015. 3.3. Erdaldunen euskararekiko jarrerak . *HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialistak*. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA. IKERKETA LANA. 2009. Bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketa. Ikerketaren emaitza eta ondorioen laburpena:

<http://www.soziolinguistica.eus/files/Bikoteen%20ohituren%20Tx%20Lab.pdf>

JAUREGI Pello; SUBERBOLA Pablo. SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA. 2014. Aldahitz ikerteta. Eusle metodologia eta hizkuntza ohituren aldaketa lan munduan

<http://www.soziolinguistica.eus/files/ALDAHITZ%20ikerketa%202014.pdf>

## Sarean

Alkarrekin Soraluze eginez: <http://www.soraluze.eus/eu/alkarrekin>

EUSTAT: [www.eustat.eus](http://www.eustat.eus)

Pilpilean euskaltzaleen topagunea (Soraluze): <http://plaentxia.eus/komunitatea/Pil-pilean>

- Gurasoentzako tresnak

Haur elebidunen gurasoentzat hitzaldiak, Iñaki Eizmendi:

<http://www.ebete.eus/euskaraz-ez-dakiten-gurasoentzako-hitzaldiak/>

<http://www.ebete.eus/guraso-euskaldunentzat-hitzaldiak/>

Emangiltza: [www.emangiltza.eus](http://www.emangiltza.eus)

- Artikulo eta elkarrizketak

Onintza Irureta Azkune: “Zuk egin erdaraz, nik euskaraz egingo dizut”. Argia. 2010eko martxoa. <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2221/elebitasun-pasiboa>

Durk Gorteri elkarrizketa: “*Hemen jendeak ingelessez hitz egiten hasi aurretik barkamena eskatzen dizu*” Durk Gorter. ARGIA (2188. zbk., 2009-06-14)

Lantalan web ataria - EMUN hizkuntza zerbitzuak – Nik euskaraz eta zuk erdaraz?

<http://www.lantalan.eus/tag/elkarrizketa-elebidunak>

EUSKO MEDIA FUNDAZIOA, SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAren gidaritzapean. Hizkuntzak aztergai: ikerketa metodoaren oinarrizko hurbilpena -

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee152152/136266>

Lantalan web ataria - EMUN hizkuntza zerbitzuak – Bikotekidearekin gaztelera, seme alabekin euskaraz, pasa algo? <http://www.lantalan.eus/tag/quraso>

- Bideoak

Soraluzeko Guraso euskaltzaleen Batzordea: Guraso berritsuen tailerrak.  
<http://plaentxia.eus/soraluze/1461697305676>

Paula Casares: Entra un idioma en casa.

<https://www.youtube.com/watch?v=lyxZVrh7ffU>

Paula Casares: la lengua se aprende en la vida, no solo en las aulas

<https://www.youtube.com/watch?v=DfSmDwowmyo>

30 + 10 MINTEGIA. 10.edizioa. ALDAHITZ ikerketa, kasu praktikoak:

<https://www.youtube.com/watch?v=VPkhB7QazHY>

## 10 ERANSKINAK

---

### 10.1 ERANSKINA I – Eztabaidea taldeetarako galdera sorta -

NI ETA EUSKARA, NI ETA HIZKUNTZAK.

YO Y EL EUSKERA, YO Y LOS IDIOMAS

- Zein da zure lehen hizkuntza? Hizkuntza gehiago dakizkizu?
    - ¿Cuál es tu idioma materno? ¿sabes más idiomas?
  - Non jaio zinen? Soraluzetik kanpokoa bazara, noiz etorri zinen Soraluzera?
    - ¿Dónde naciste? Si naciste fuera de Soraluce, hace cuanto viniste aquí?
  - Noiz entzun zenuen lehen aldiz euskara? Ze oroitzapen duzu?
    - ¿Cuándo oíste euskera por primera vez? ¿Qué recuerdo tienes?
  - Zenbateko harremana izan duzu zure haurtzaroan, gazte denboran euskararekin? Familian, eskolan, kuadrilan...
    - ¿Qué o cuanta relación has tenido con el euskera en tu niñez, de joven...?
  - Eta gaur egun zenbateko presentzia du euskarak zure familiar, lanean, kuadrilan...
    - ¿Y hoy en día? ¿Qué presencia tiene el euskera en tu familia, trabajo, cuadrilla...? Más, menos que antes?
  - Euskararen ezagutzari dagokionez non kokatzen duzu zure burua?
    - ¿Dónde te colocarías si te preguntásemos sobre tu nivel de euskera?
1. Euskararekiko pertzepzioak, aurreiritziak, bzipenak eta jarrerak. “18 minuto”  
QUE ES EL EUSKERA PARA MI? EXPERIENCIAS; COMO NOS SENTIMOS, VIVENCIAS;  
ESTADO DEL EUSKERA, EUSKARA vs POLITICA; RELACION CON EL EUSKERA,  
APRENDIZAJE, CUALES SON NUESTRAS PERCEPCIONES, NUESTROS PREJUICIOS,  
PREJUICIOS DE LOS DEMÁS...
- Zer da zuretat euskara? ¿Qué es para ti el euskera?
  - Es importante el aprendizaje de idiomas? De todos en el mismo nivel? Donde colocarías el euskera?
  - Nola ikusten duzu euskara? ¿Cómo ves el euskera? ¿en qué estado?
  - “Euskararen mundutik” gertu sentitzen al zara? Eta eroso? Te sientes cerca del “mundo del euskara”? Y te sientes cómod@?
  - Nola sentitzen zara euskararen aurrean? ¿Cómo te sientes con el euskera?
  - Nola bizi izan duzu euskarekin izandako harremana? ¿Cómo te has sentido en la relación con el euskera?
  - Nola bizi izan duzu euskararen munduarekin harremana? ¿Cómo has vivido la relación con el mundo del euskera?
  - Ze bzipen izan duzu? Ze gorabehera? ¿Que vivencias has tenido? ¿Qué sobresaltos?
  - Ez ikasteko edota ikasten ez jarraitzeko zein izan da zure arrazoia? Has tenido opción de aprender euskera? Que te empuja a ello? Cual ha sido la razón para no aprender o no seguir en el aprendizaje?
  - Euskararen inguruko bzipen on/politik gogoratzen duzu? Kontatzerik? Tienes algún recuerdo o experiencia buena con el euskera? Nos la puedes contar?
  - Euskararen inguruko bzipen konkretu txar/zatarrik gogoratzen duzu? Kontatzerik? Tienes algún recuerdo o experiencia mala con el euskera? Nos la puedes contar?
  - Euskara eta politika, nola ikusten dituzu? Nola ulertzen dituzu? ¿Cómo entiendes el euskera y la política?
  - Es prioritario para ti el euskera en comparación con otros temas... (trabajo, convivencia...). Tienen alguna relación?

2. Erabilera/USO DEL EUSKARA. Sobre lo que usamos el euskera, cuanto, como, con quien? Cuando utilizan el euskera, cuando, como, con quien? Como nos sentimos? Como actuamos? Como nos sentimos?. “18 minutu”
    - Dakizun euskara erabiltzen duzu? Norekin eta ze testuingurutan erabiltzen duzu euskara zure eguneroko bizitzan?
      - ¿Utilizas el euskera que sabes? Con quien y donde utilizas el euskera en tu día a día?
    - Erabiltzen ez baduzu... norekin eta ze testuingurutan entzuten duzu euskara zure eguneroko bizitzan?
      - Si no lo utilizas... con quien y en que situaciones hoyes euskera en tu día a día?
    - Zergatik erabiltzen duzu edo zergatik ez duzu erabiltzen? ¿Porqué/cuando lo utilizas y porque/cuando no lo utilizas?
    - Zeinetan erabiltzea gustatuko litzaitzuke? ¿Con quién te gustaría utilizarlo?
    - Ze testuingurutan topatzen duzu zeure burua erosu / deseroso euskaraz? ¿En que situaciones te encuentras cómodo e incómodo con el euskera?
    - Nola sentitzen zara euskaraz hitz egiten dugunean? ¿Cómo te sientes cuando hablamos en euskera?
    - ELKARRIZKETA ELEBIDUNAK: Nola sentitzen zara euskaraz egin ahal dizuten galdetzean? Gaiaren inguruan aurrean duzunarekin adostaunera iristeko aukera izan duzu inoiz? Posible dela ikusten duzu? ¿Cómo te sientes si te preguntas si pueden hablarte en euskera? Has tenido oportunidad de llegar a un acuerdo con el locutor? Ves esto viable?
  3. Transmisioa. TRANSMISION. VALORES QUE RECIBIMOS NOSOSTROS, FAMILIA, ESCUELA; CALLE; TRASNSMISION DEL EUSKERA DE VUESTROS HIJOS (VALORES; SENTIMIENTOS, ...), VALORES QUE RECIBEN NUESTROS HIJ@S... “18 minutu”
    - Euskararen inguruan ze transmisió jaso duzu? Ze balore? Familiar, eskolan, kalean... Eta nola oroitzen duzu? ¿Qué valores te han transmitido sobre el euskera? En la familia, en la escuela, en la calle...
    - Nola ikusten zuten/dute zure gurasoek/osaba izebek euskara? Eta aurreko belaunaldiek? ¿Cómo veían el euskera tus padres, tíos ... y las generaciones anteriores?
    - Zure seme alabak euskaraz badakite, ikasten ari dira... ze iruditzen zaizu? Vuestr@s hij@s saben euskera, lo están aprendiendo... que os parece?
    - Zuen seme alaben euskararen ikaste prozesuan non kokatzen zara?  
Dónde te colocas en el proceso de aprendizaje del euskera de tus hij@s? Papel activo, pasivo, como te sientes?
    - Zuen seme alaben euskara maila/kalitateak zenbateko garrantzia du zuretzat?  
¿Qué importancia tiene para ti la calidad el nivel de euskera que tenga tu hij@?
    - Zure ustez zenbateko garrantzia du eskolak zure seme alaben euskararen ikasketa prozesuan? ¿Para ti que importancia tiene la escuela en el proceso de aprendizaje del euskera?
    - Eta aisialdiko ekintzak, garrantzitsuak dira? Y las actividades extraescolares?
- GARAI BATEKO ETORKINAK. GAIA IRTEN EZ BADA ATERA, BERAIEN FAMILIETAN ZER ETA NOLA BIZI ZIRE ETA EUSKERAK ETXEAN HARZTEN ZUEN GARRANTZIA. HONEK NOLABAIT MARKATU OTE ZITUEN ALA EZ. PRIORIDADES FAMILIARES DE VUESTROS PADRES/ABUELOS...
- Se le da demasiada importancia a la transmisión del euskera o para ti es verdaderamente importante?

4. Kontzientziazo maila. CAMPAÑAS DE NORMALIZACION, NECESARIAS O NO, “18 minutu”
  - Euskaraz jakitea beharrezkoa/komenigarria dela uste duzu? ¿Crees que saber euskera es necesario/conveniente?
  - Uste duzu nahikoa egiten dela euskara bultatzeko (erakundeetan, gizartean...)? ¿Crees que se hace lo suficiente en favor del euskera (sociedad, instituciones...)?
  - Nola jasotzen dituzu euskararen aldeko diskurtsoak/kanpainak? ¿Cómo percibes los discursos/campañas a favor del euskera?
  - Euskaraz jakin gabe ere euskara bultzatu daitekeela uste duzu? ¿Crees que se puede hacer a favor del euskera sin saberlo?
  - Zu zer egiteko prest egongo zinateke? ¿Qué estarías dispuest@ a hacer en favor del euskera?

LOS DATOS DICEN QUE EN SORALUZE L@s NIñ@s HABLAN POCO EUSKERA. TU PERCEPCIÓN ES LA MISMA? QUE IMPORTANCIA TIENE ESTO PARA TI?

#### 5. Parte hartzea. PARTICIPACIÓN SOCIAL/CULTURAL vs EUSKERA/IDIOMAS

- Hizkuntza parte hartzeko oztopo da zuretzat? Non? Zergatik? El idioma es un límite para participar? Donde? Porqué?
6. Aurrera begira. COMO TE PROYECTAS, QUE TE GUSTARÍA, ... “18 minutu”
    - Nola irudikatzen duzu zure burua hemendik urte batzutara euskararen aurrean? ¿Cómo te imaginas en un futuro ante el euskera?
    - Eta nola kokatzen dituzu zure seme alabak? ¿Y cómo imaginas a tus hij@s en un futuro ante el euskera?
    - Euskararen alde egiteko prest bazaude, zure aldetik zer egin dezakezun badakizu? ¿Estoy a favor del euskera pero ya se lo que puedo hacer a su favor?
    - Zer eskatzen diozu euskara dakitenei aurerra begira? ¿Qué les pedirías a l@s euskaldun parlantes para el futuro?
    - Soraluzeko “euskararen mundua”ri zer eskatzen diozu? ¿Y al mundo del euskera?
    - Zer nahi duzu zure seme alabentzat etorkizunean? ¿Qué te gustaría para el futuro de tus hij@s?

## 10.2 ERANSKINA II Guraso berritsuak – guraso ia euskaldunekin euskaraz!

### 1. Guraso berritsuak familiar

Familiar guraso berritsuak, eusle metodologia eta bikoteen hizkuntza ohituren azterketak oinarri hartu da baina parte hartzileen gaitasuna kontuan izanda (1 ia euskalduna + 1 euskalduna) egin da egokitzapena. Bikote hauen artean elkarrizketa elebidunak bultzatzea izango da helburu nagusia.

#### Parte hartzaleak

Bikoteen artean edo seme alabekin emango dira elkarrizketa elebidunak beraz guraso ia euskaldunak eta bikote/seme alaba(k) hartuko dute parte prozesuan ezinbestean. Biek agertu beharko dute prozesuan parte hartzeko borondatea.

- Guraso ia euskalduna / eusle laguna: Guraso ia euskalduna bikote edo seme alaba euskaldunei bidea erraztu eta euskararen ezagutzan urratsak emango dituen gurasoa da. Euskaraz egiten ez badu ere eusleari euskaraz egiteko eskaera egin eta elkarrizketa elebidunak errazten saiatuko da.
- Bikote edo seme alaba, euslea: Guraso ia euskaldunarekin, euskarari eutsiko dion euslea izango da. Guraso ia euskaldunarekin elkarrizketa elebidunak mantentzen saiatuko da.

Dinamizatzaleak: Soraluzeko guraso euskaltzaleen batzordea

#### Prozesua:

2 hilabetez jarriko da esku hartzetako martxan. Parte hartzale guztiekin 2 saio burutuko dira hilabete hauetan eta guztira 3 ebaluazio momentu egongo dira.

#### 1go saioa: Prozesua abiatzeko

- Saioa hasteko jolasak
- Prozesuaren azalpena
- Parte hartzileen nahi, espektatiba eta beldurak.
- Aurrekarietan aipatutako arrakastarako gakoen lanketa
- Parte hartzileen egitekoak
  - o Egungo egoeraren fitxa bete
  - o Ebaluazio fitxaren azalpena

\* Ebaluazio fitxak: Eusle metodologian erabili diren fitxak oinarri hartu eta egokitzapenak egingo dira.

#### 2. saioa: 2 hilabeteko prozesuaren ostean

- Parte hartzaleen balorazio orrien deskargua
- Parte hartzaleen balorazioa: zaitasun, lorpen eta aurrera begirako nahi.

### Ebaluazioak

- Parte hartzale bakoitzak astero beteko du ebaluazio orria. Adostutako bideetatik gogoraraziko zaio eta adostutako bideetatik jasoko da.
- 2.hilabetean datu guztien hustuketa eta balorazio orokorra egingo da parte hartzaleekin
- 3 hilabeteko atsederenaren ondoren ebaluazio berri bat egiteko eskatuko zaie.
- Prozesuaren emaitzak aztertu eta aurrera begirako proposamenak landuko ditu Soraluzeko euskaltzaleen batzordeak

### Kontuan hartzekoak:

- Saioetan haurren parte hartza bultzatuko da eta haiei begirako egokitzapenak egingo dira
- Seme alaba eusleak: Euskara egitearen ardura haien gain ez jartzeko bideak urratuko dira

## 2. Mendi taldeko guraso berritsuak:

Soraluzeko umeen mendi taldean (<http://soraluzemenditalde.hol.es/index.php>) parte hartzen duten gurasoek hartuko dute parte, kasu honetan zaila izango da taldeko guraso guztiak partaide izatea, hala ere ahalegina egingo da mendi taldeko guraso ahalik eta gehienetan parte hartza bermatzeko. Prozesu honetan borondatezkoa izango da parte hartza. *Aldahitz*-eko eusle metodologian bezala taldetasunaren printzipioak ere garrantzitsuak izango dira. Akaso ez dira talde honetako kide denak ekimenean parte hartza animatuko baina parte hartzen dutenen artean sortuko da taldetasuna, mendi taldeko guraso berritsuak izango dira.

Mendi taldeko zuzendaritzekin partekatuko da ekimena, baina ez da haien esku utziko dinamikaren zama, parte hartzaleak eurak izango dira prozesuaren bultzatzaile nagusiak. Zuzendaritza eta Soraluzeko guraso euskaltzaleen lankidetza eta dinamizazioak lagunduko du ekimenean baina guraso berritsuak izango dira prozesuaren bermatzaile eta protagonista.

Mendi taldeak antolatzen dituen mendi irteeretan euskararen erabilerari bultzada eman nahi zaio, dakit gurasoek eginez eta ulertzten dutenek euskarari atea zabalduz.

### Parte hartzaleak

“*Aldahitz*” eko eusle metodologian ez bezala, euskaldunez gain ia euskaldunak izango dira lehen unean prozesu honetako protagonista. Euskaraz egiteko zaitasunak izanik ere, guraso euskaldunari euskaraz egiteko bideak erraztuko dizkioten guraso ia euskaldunak. Mendi taldetik ekimenean parte hartu eta onespena emango dioten gurasoak izango dira guraso berritsuak eta hauen barnean bi figura egongo dira. Taldearen onarpena izango duten figurak.

- Guraso ia euskaldunak / eusle lagunak: Guraso ia euskaldunek guraso euskaldunei bidea erraztu eta euskararen ezagutzan urratsak emango dituzten gurasoak dira. Norberak aurkeztuko du eusle lagun bezala norbere burua eta taldearen onespenarekin egingo du aurrera bere egiteko berrieta. Gazteleraaz egiten dion guraso euskaldunari berari euskaraz egiteko eskaera luzatuko dio. Guraso euslea bada horretarako konpromisoa izango du eta saiakeran jarraituko du. Guraso euskalduna ez bada euslea, eusle lagunak proposamena luzatu diezaiok baina ez da bide horretan segi dezan tematuko.

- Guraso euskaldunak / eusleak: Guraso eusleak eusle lagunekin euskaraz egingo dute beti eta gainontzeko egoera gehienetan ere ahalik eta euskara gehien erabiltzen saiatuko dira. Norberak aurkeztuko du eusle bezala norbere burua eta taldearen onespenarekin egingo du aurrera bere egiteko berriean.

\*figura biekin elkarritzeta elebidunetan egingo da saiakera nagusia. Hizkuntza ohitura aldaketetan, zaitasun txikitik hasi haundirako bidea egitea izaten da ohikoena. Kasu honetan ez da bide xamurra aukeratu baina elkarritzeta elebidunak bilatze honek euskaldunen arteko erabileran ere eragina izango duela aurreikusi daiteke eta hala den neurtuko da.

Guraso berritsuak: lehen aipatu bezala mendi taldetik egitaskoari baietzan eman dioten denak izango dira ekimeneko parte eta momenturen batean eusle edo eusle lagun. Eusle edo eusle lagun ez diren momentuetan ezingo diete eusleei gaztelaraz egiteko eskatu, bai ordea ulertzeko bideetan laguntzeko eskatu (polikiago esateko, errepetatzeko...).

Dinamizatzaleak: Soraluzeko guraso euskaltzaleen batzordea izango da. Zuzendaritzari prozesua errazteko laguntza eskatuko zaiolarik. Beraz, batzordea eta umeen mendi taldeko zuzendaritza elkarlanean arituko dira.

#### Prozesua:

Mendi taldeko egutegia kontuan hartuta egingo da proposamena. Mendi taldeak martxotik ekainera bitarte 10 bat irteera antolatzen ditu. Udan bi hilabetetako atsedenaldia egiten du eta iraila eta urrian 6 bat irteera gehiago antolatzen ditu. Irteeratik irteerara 15 eguneko tartea izaten da gehienetan.

Kasu honetan beraz, bi hilabete baino gehiagotan luzatuko da ekimena. Ebaluazio eta atsedenaldiak ere desberdin egingo dira. Aldahitzen parte hartu duen JMA lan-gunearen metodologia “berezia” hartu da erreferentzia bezala.

JMA lan-gunean emaitza onak ikusirik 10 hilabetetara zabaldu zen esku hartzea eta momentu batzuetan eskua hartzeari indarra emateko eusle kopurua gehitu egiten zen. Beste kasu denetan jarraitu den denboralizazioa eta metodologia berdina izan da.

Apirila-ekaina: 8 irteeratan jarriko da martxan dinamika. Irteera bakoitzerako eusleak eta eusle lagunak izendatuko dira eta errotatu egingo dira. 7 irteeratan 2 guraso eusle / 2 guraso eusle lagun / 10 guraso berritsu proportzioak mantenduko dira (proportzioak aldahitzeko erreferentziak kontuan hartuta). Egutegiko azken irteeran (guraso berritsuen 8.na), eusle eta eusle lagun izan diren denak izango dira eusle eta eusle lagun.

Iraila-urria: esku hartze gabe neurketak egingo dira.

Azaroa: eusle guztiak batera. Hau batez ere hurrengo kurtsorako gogoratze txerto bezala proposatzen da.

#### 1go saioa: Prozesua abiatzeko. Lehen neurketa egin ostean

- Saioa hasteko jolasak
- Prozesuaren azalpena
- Parte hartzaleen nahi, espektatiba eta beldurrak
- Parte hartzaleen egitekoak
  - o Eusle eta eusle lagunak izendatu eta egutegian banatu
  - o Ebaluazio fitxaren azalpena

\* Ebaluazio fitxak: Eusle metodologian erabili diren fitxak oinarri hartu eta egokitzapenak egingo dira.

#### 2. saioa: Ekaina. 2. Neurketa egin ostean

- Parte hartzaleen balorazio orrien deskargua
- Parte hartzaleen balorazioa: zaitasun, lorpen eta aurrera begirako nahia.
- Erabilera neurketaren emaitzak

#### Ebaluazioak

- Eusle eta eusle lagunek irteeraren ostean fitxa bete eta helarazi (zuzendaritzari)
- Dinamika eta lehen saioa baino lehenago erabileraren neurketa egingo da irteera batean
- 8. Irteeraren osteko irteeran egingo da hurrengo neurketa
- Esku hartze gabeko irteeren ostean egingo da 3.neurketa (urria)
- Prozesuaren emaitzak aztertu eta aurrera begirako proposamenak landuko ditu Soraluzeko euskaltzaleen batzordeak

#### Kontuan hartzekoa:

- Eusle eta eusle lagunak zeintzuk diren argi ikustea interesgarria da. Horretarako materiala prestatuko da.

•